

Mieltxo, eltxo

PABLO BARRIO

BOOKTEGI





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

PABLO BARRIO

Mieltxo, eltxo



Lan honek Kultura Ministerioaren laguntza jaso du bere sorkuntzarako Liburuaren, Komikiaren eta Irakurketaren Zuzendaritza Orokorraren bitartez.

AURKIBIDEA

1. EKITALDIA

1. Eszena: Auzoko Emakumearen deklaraziotik hartuta.
2. Eszena: Pediatraren deklaraziotik hartuta.
3. Eszena: Etxean. Lehenengo egunak
4. Eszena: Pediatraren deklaraziotik hartuta (segida).
5. Eszena: Etxean. Lehenengo hegaldiak.
6. Eszena: Etxean. Gurasoen lagunaren bisita
7. Eszena: Aitaren txikitako lagunaren deklaraziotik hartuta.
8. Eszena: Etxean. Gurasoen lagunaren bisita (segida).
9. Eszena: Etxean. Gauez.

2. EKITALDIA

1. Eszena: Entomologoaren Neska Laguntzailearen deklaraziotik hartuta.
2. Eszena: Entomologoaren bulegoan. Lehenengo aldia.
3. Eszena: Etxean. Bi emakumeak.
4. Eszena: Entomologoaren laborategian.
5. Eszena: Entomologoaren Neska Laguntzailearen deklaraziotik hartuta (segida).
6. Eszena: Entomologoaren laborategian.
7. Eszena: Entomologoaren bulegoan. Gurasoen bisita.
8. Eszena: Entomologoaren laborategian. Neska laguntzailearekin.
9. Eszena: Entomologoaren Neska Laguntzailearen deklaraziotik hartuta (segida).

3. EKITALDIA

1. Eszena: Entomologoaren laborategian. Entomologoarekin.

2. Eszena: Etxean.

3. Eszena: Gurasoen deklaraziotik hartuta.

PERTSONAIAK:

Mieltxo

Ama

Aita

Emakumea

Gizona

Entomologoa

Entomologoaren Neska Laguntzailea

Auzoko Emakumea

Pediatra

1. EKITALDIA

1. Eszena: Auzoko Emakumearen deklaraziotik hartuta.

(Auzitegiaren aurrean deklaratzeko. Publikoari begira.)

Erditze lanak bukatu emaginak

zilborra lotu

amaberriaren besoetan umea jarri

eta... harria putzura bezala, plotx...!

"Honi, Mieltxo jarri behar diozue izena.

Mieltxo, bai horixe.

Mieltxo"

horrela bota zion latexko eskularruak kendu bitartean.

"Zer, bada?",

izerditan oraindik

arnasa baretu gabea oraindik

larritasunezko olatu txiki bat oldartu zen amaberriaren baitan.

"Oi...! Ez diozu itxura ikusi?".

"Itxura? Zer itxura?".

"Ene, emakume, ez zenuen ikusi aurrekoan telebistan eman zuten dokumentala?"

Badakizu, animaliak eta zomorroak eta horrelakoak erakusten dituzten horietako bat".

"Ez, ez nuen ikusi".

"Bada, eltxoen larbak honen antzekoak ziren".

“Ai ama...”, unibertsoaren hasierako bezalako burrunbada zabaldu zen amaberriaren ertz guztietara,

azaleko ertzetara eta barru-barruko ertz ezkutuenetara,

hauetara batez ere,

inongo ataletan topatzen ezin diren esanezinezko labirintoetara,

Minotauro Gorria bera gordetzen dutenetara,

eta motz geratzen ari naiz, epaile andrea.

Halakoa izan baitzen jaioberriaren amak hartu zuen larria!

Eta aita? Ufa, aita!

Aita, bere maitasun zintzoaren erakusgarri moduan erditzearen lekuko izanik

ordurako paperaren kolorekoa bazuen aurpegia, gizajoa.

Larben zera hura entzun eta, ai ene,

goitik behera airean irristatu

eta paretako egutegitik eroritako orriarena egin zuen hantxe bertan,

erditzeko gelako zoruan bertan, luze eta zabal, alfonbraren plantan,

kanka! Bekokian kankarreko ederra hartuta, zer esanik ez.

Gizonezkoen horrelako zorabioei ohituta, eskuarekin haizea eman emaginak

eta emakumearekin jarraitu zuen hizketan, lasai antzean,

“Beraz, eltxo-eltxo bada... esandakoa, onena Mieltxo, ez duzu uste?”.

Amari berari entzunda dakit nik hori, ez dut ezer asmatu.

Badakizu, epaile andrea,

auzitegiko aldageletan, tira, hemen aldagelarik ote dagoen ere ez dakit

eta ezin dut esan,

baina kiroldegikoetan

ufa!... horietan ez dago sekreturik

eta amak berak kontatuta.

(Ilun.)

2. Eszena: Pediatraren deklaraziotik hartuta.

(Aurreko lekukoaren antzera, publikoari begira.)

Ondo dagoenak medikuren beharrik ez du, ezta?

Halaxe esan izan da beti eta halaxe behar luke izan, nire ustez.

O, bai, bai, badakit zer esaten duten nire kolega pediatra alproja diruzale horiek,
kontsulta saltzaileak behin baino gehiagotan, baina...

Bai, arrazoia duzu, noski, epaile andrea,

ez da hau lekua horrelako kontu gremialak...

bai, bai, harira,

mamira.

Esan nahi dudana da

jaioberria ondo bazegoen

zergatik horrenbeste samin eta nahigabe?

Nik behintzat horrela esan nion amari kontsultara etorri zen lehenengo aldian,

senarra ondoan zuela,

senar zurbila, egia esan, zurbil-zurbila benetan

beno, zurbila baino hila besterik gabe ematen zuen ia gizajoak,

ezpainak ere esne kolorekoak zituen, pentsa,

eta benda bat jarrita kopetaren bueltan gainera.

Diodana,

zutik bai

baina jota

seko hilda zegoela ematen zuen senar gizajoak...

Bada, halaxe esan nion emakumeari

umea ondo zegoela eta lasai egoteko.

Tira, eta bere gizonaren egoerari ere kasu pixka bat egiteko, ze...

"Honek?"

dzast! moztu zidan

"Honek? Baina ez duzu ikusten?"

"Ezta errausteko ere ez du balio honek!"

Hura entzun eta lasaitu ederra hartu nuen, ez pentsa

senarra bizirik zegoela oraindik esan nahi baitzuen

hala ulertu nuen nik behintzat. Oker agian,

baina horrela ulertu nion, zer nahi duzu esatea...

Ados, ados, barkatu epaile andrea, umeeekin egiten dut lan

eta joera daukat txaskarriloetarako beraien arreta erakartzeko eta, bestela...

Baina harira, harira, bai, barkatu...

Amaberriari ospitalean alta eman eta hurrengo egunean gertatu zen hura,

kontsultara etortzea.

Lo gozoan zegoen Mieltxo, amaren altzoan

begiak itxita

arnasa lasaia...

Gehiegi esatea izango da agian baina haren aurpegieran gure mundu honetako nahasmenak
baretzeko sosegu nahikoa bazegoela esango nuke nik,

eta ez da gutxi.

Tamalez...

mundu honetako nahasmen guztiak baino handiagoa omen zen, ordea, amaren ezinegona.

“Ezinenegononona”, horrela, mingaina trabatuta esan zuen berak, urduriak jota.

Zer egin behar diogu, bada. Pediatrian ari garenon patua da

askotan

umeak baino

gurasoak dira tratatu behar ditugunak.

“Egia da emaginak esan zuena,

interneten sartu eta nire begi hauekin ikusi dut nik

wikipedian,

wikipedian, bai, hortxe ikusi:

eltxo edo zomorro zikin horien larben itxura handia du gure umeak!”,

negar batean bota zuen.

Botikan lasaitzeko pilulak batzuk hartzeko egin nion errezeta,

zer egin nezakeen bestela?

Halaxe egin nuen lehenengo kontsulta hartan.

Kontua da,

handik aurrera, nahiz eta Mieltxo ondo sano egon

egunero-egunero eskatzen zuela pediatrarako ordua

egunero-egunero izaten nituela ama eta bere senar zurbil ezpain-esne-kolorekoa
anbulategiko kontsultan,

negar egiteko puntuan beti sartzean

negar batean beti ateratzean

negar bete-betean ziur asko etxean.

Egia da intsektu batzuen larben antzera,

konkretuki, eltxoen larben antzera,

Mieltxoren hazkunde prozesua oso azkarra zela,

ez zela ume bati dagokiona, alegia.

Egunetik egunera, kiloren bat gehiago markatzen zuela baskulan

lauzpabost zentimetro bai irabazi altueran.

“Eta hori guztia amaren titia probatu gabe”, esan zuen halako batean amak.

Kolkorako gorde nituen txantxa txar guztiak, jakina,

baina senarrari begiratu,

senarraren esne koloreko ezpainetara begiratu

eta, *“Joño, horiek tripakadak, horiek! E, gizona!”*,

barkatu, epaile andrea, badakit ez dela oso burutazio zuzena

baina lekuko batek egia osoa esan behar du beti, ezta?

Bada, titia aitarentzako, Mieltxoren amak aitarentzako uzten zuela,

halaxe pentsatu nuen,

emazteak gizona makal ikusi eta ea noizbait arraio suspertzen zen!

Berehala argitu zidan kontua amak, ordea

negar lantuak eta mukiak tartean

“Ez titiaz, ez biberoiaz,

loreen nektarez elikatzen da gure umea”.

Bai, bai,

loreen nektarez

loreen nektarez elikatzen zen Mieltxo.

Amak kontatzen zuenez

titari muzin egin

eta bisitan etorritako senideek edota lagunek oparitutako lore sorten aldera bideratzen omen
zituen ezpainak,

petaloak apartatu eta hango kalizen aldera,

hantxe aurkitzen baitzuen bere gustuko gutizia.

Horrek harritu ninduen pixka bat egia esan, epaile andrea,

baina, pfa...

amek

eta batez ere, lehen erditzea bada,

esaten duten guztiari kasu egin beharko bagenio pediatrok...

(Ilun.)

3. Eszena: Etxean. Lehenengo egunak.

(Mieltxoren logela. Balkoia irekita dago. Sehaskan umea, ondoan haizagailu bat martxan. Ondoko mahaitxoan lore sorta bat. Sehaskari begira gurasoak. Amak abaniko bati eragiten dio noizean behin.)

Ama: Konturatu zara, maitea? Ez ditu inoiz begiak irekitzen.

Aita: Jakina, lotan dago beti. *(Isilune txikia)* Ona da, oso txintxo...

Ama: Bai, baina ez dakigu oraindik norenak dituen begiak.

Aita: Norenak izango ditu, bada? Nireak, noski.

Ama: Bo, bo, bo...

Aita: Ez, ez.. ez dit inporta zure trazako begiak baditu, e! Atsedean handia aurkitzen dut nik horietan.

Ama: Kezka aurkituko zenuke gaur baina. Begiak arimaren atea badira behintzat, atsedean gutxi eta kezka ugari aurkituko.

Aita: Ez esan hori, maitea. Ona da, sano dago...

Ama: Bai, baina loreetako kalizetan bilatzen du jatekoa.

Aita: Ez du pisurik galdu, alderantziz, irabazi. Astebetea ez du egin eta txikia geratu zaio sehaska dagoeneko. Ohetxo bat erosi beharko diogu...

Ama: Amari gorrotoa adierazteko, edo, ez dakit, trauma edo konplexu edo filmetako zera horietako bat ez da izango, ezta? Hori, titia alboratu eta jatekoa loreetan bilatzearena, esan nahi dut. Nik ez diot ezer txarrik egin berak horrela gorrotatzeko. Interneten begiratu beharko dut.

Aita: *(Eskua luzatuz emaztearen bularraldera)* Utzi, utzidazu niri jaten, bada. Zuri maitasuna adierazteko, ulertzen? Ez dakit nola esan, ez da trauma edo obsesio edo filmetako zera ilun horietako batek jota nagoela. Ez. Maitasuna besterik ez da, maitasun arrunta, betiko maitasun xumea.

Ama: Utikan! Burutik al zaude? Zeinek daki, areagotu egingo zaio gorrotoa agian, Elektraren konplexua edo zera horiek gaiztotu.

Aita: Elektra ez, maitea, mutila da. Izatekotan, Edipo litzateke.

Ama: Elektra, Edipo... berdin zait. Greziar alproja horiek daukate errua, beraiek asmatu zituzten aldrebeskeria horiek guztiak...

Aita: Utikan greziarrak, emakume, eta utzidazu. *(Eskua luzatuz berriro)* Ez da ezertaz enteratuko, lo dago.

Ama: Ez, ez, ez... orain ez.

Aita: Zergatik ez...?

Ama: *(Kezkaz)* Esnatu egin beharko genuke; bestela, auskalo noiz ikusiko dizkiogu begiak... *(Esnatzeko asmotan)* Mieltxo, maitea... zatoz, zatoz amatxorekin...

(Umea hartzera doala, zerbait arraroa antzematen dio bizkarrean Amak. Arropa jaso apur bat... ikarazko garrasi bat eskapatzen zaio.)

Ama: Ai, ama! Zer da hau?

Aita: *(Mieltxoren bizkarra ikustean)* Ene...

Ama: Azkar! Azkar!! Eskatu ordua biharko! *(Negarguraz)* Hau zoritxarra gurea... *(Ilun.)*

4. Eszena: Pediatraren deklaraziotik hartuta (segida).

(Auzitegiaren aurrean deklaratzeko. Publikoari begira.)

Jaio eta astebetera ekarri zuten azken aldiz Mieltxo Pediatria kontsultara.

San Joan bezperatan geunden, ederki gogoratzen dut hori

zeru urdina goian, berotsua zetorren eguna,

tira, berotsu datoz egun guztiak aspaldidanik, egia esan,

eta irekita nuen leihoa

goizeko hego haize txikia sartzen uzteko.

Eguneroko kontsulta zerrendari hasiera eman eta

taka

haiek, aurreko egunetan bezala.

Lo gozoan zegoen umea, amaren altzoan

begiak itxita, arnasa bare-bare, aurreko egunetan bezala.

Urduri zegoen ama, oso urduri, aurreko egunetan bezala hori ere

gauza inportante bat kontatzeko balu bezala...

Orduan gertatu zen kontua.

Bat-batean, txori bat pausatu zen leihoaren ertzean

txolarre bat edo, ez dakit,

ez zen gauza arraroa, batzuetan gertatzen da,

txoriren bat pausatu, txio egin eta alde egiten du hegan berriro.

Baina hark ez.

Hark ez zuen txorik egin

hark ez zuen alde egin berriro

hark

mokoa luzatu

eta umearengan jarri zuen arreta.

Mieltxori begira geratu zen, alegia

adi-adi

begira-begira

Mieltxori begira,

ez bakarrik begiak

mokoa ere Mieltxori begira

gorputz guztia Mieltxori begira

ulertzen?

Bat-batean, hegalditxo bat egin eta, hara!, mahai ondoko apal batean pausatu zen,

Mieltxori begira beti

mokoa ere Mieltxori begira,

umea mokoka erasotzeko prest, pentsatu nuen.

Badakit ez hankarik ez bururik ez zuela, baina susmo hori hartu nion

umea mokoka erasotzeko prest zegoela.

Orduan gertatu zena ez dut denbora luzean ahaztuko.

Umeak

lo egon arren

begiak itxita eduki arren

txoriaren presentzia sentitu nonbait

eta

arnasa azkartu

Labur esanda, hegan, epaile andrea!

Brzzzzzzzzzz... bizkarrean hazita zituen hegaltxoekin.

Hura hartu genuen sustoa.

Nik hartu sustoa, amak hartu sustoa, eta aitak... zer esanik ez,

ordurako bere-berea ematen zuen paperaren koloreko aurpegia lekuko.

Mieltxoren hegaldi hura ikusi aitak

goitik behera airean irristatu

eta paretako egutegitik eroritako orriarena egin zuen beste behin ere.

Txolarreak berak

sustoa hartu eta alde egin zuen leihotik.

Eta Mieltxo...

Mieltxo sabaiko lanparan zegoen pausatuta

arnasa ufaka oraindik

brfff.. brfff...

eta begiak ireki-irekita oraingoan

begiak irekita lehenengo aldiz, bai, zabal-zabal irekita

adi-adi leihoari, handik ihes egina baitzen txoria

begiak...

Begiak...

ez dut gezurrik esaten, txostenean daude argazkiak,

iragazki motako begiak, epaile andrea

bai, bai, KOLADORE motakoak

esnea eta esne-gaina bereizteko koladore edo iragazki mota horietakoak?

Bada, horietakoak.

Begiak.

Pentsa.

Enfin, sabaiko lanparatik hegalditxo egin gero eta amaxoren magalera itzuli zen berriro
amaxoren besoetara

bertan goxo-goxo lotara berriro.

Nik, epaile andrea, zer nahi duzu nik esatea... eltxo-sarerako egin nien errezeta.

Eltxo-sarerako, bai. Ez etxean eltxoen sarrera ekiditeko, jakina, ez, ez, ez...

Kontrakoa, halako batean Mieltxok alde ez egiteko baizik.

Zer besterik egin nezakeen? Sano zegoen Mieltxo eta.

Sano-sano. Gu orain gauden baino sanoago.

Egia esan, nik uste nuen eltxo-sarearen errezetarekin konpondu zela dena.

Ez zuten berriro hitzordurik eskatu eta.

(Ilun.)

5. Eszena: Etxean. Lehenengo hegaldiak.

(Atzealdean dagoena erabat ezkutatuz, eltxo-sare handi batek estaltzen du laugarren pareta alderik alde. Argiak itzalita daude, ilun dago dena, ez da ezer ikusten eszenatokiaren gainean.

Ama sartzean, argia piztu eta dagoeneko ezaguna zaigun umearen logela agertzen da eltxo-sarearen atzealdean. Sehaskaren ondoan haizagailua martxan dago. Lo dago Mieltxo. Egun gutxiren bueltan dezente hazita dago umea eta sehaska txikia geratu zaio dagoeneko, hankak albotik ateratzen zaizkiola, maindire nahasiak ozta-ozta estaltzen diola gorputza. Alboko mahaitxoan, lehen bezala, lore sorta bat, nabarmen handiagoa oraingoan ordea. Balkoia itxita dago, hala ere beste eltxo-sare txikiagoa dauka aurrean, babesteko.

Abanikoa eskuan, ohe aldera hurbildu Ama eta umea ondo dagoen begiratzen du. Maindire nahastea txukundu, umea ahal duen ondoen tapatu eta ohe alboko mahaitxora hurbiltzen da gero.)

Ama: *(Lore sortari begira)* Dena bukatu duzu? Oso ondo, Mieltxo. Eramango dut. Berehala ekarriko dizut hurrengo... nola esan.... hurrengo edoski...? Hurrengo lore sorta? Ufff... zer zaila den hau.

(Amak argia itzali ateratzean eta ilun geratzen da berriro eltxo-sarearen atzealdea. Ez da Mieltxo ikusten, baina Amaren sartu-irtenak esnatu omen du umea. Ilunetik, buruan dabilzkion pentsamenduak iristen zaizkigu.)

Mieltxo: *(Off-ean)* Eskerrik asko loreengatik, ama, oso gozoak dira. Oraindik ez dut zuk bezala hitz egiten ikasi. Pentsatzen baino ez dakit oraindik. Tira, pentsatzen baino sentitzen. Hala ere, asko maite zaitudala gustatuko litzaidake esatea. Horixe gustatuko litzaidake esatea. *(Isilune laburra)* A, eta beste gauza bat. Hitz egin ez, baina hegan gero eta hobeto dakit! Aurreko egunean pediatararenean baino askoz arinago. Ezetz? Begira... begira zer ondo! *(Brzzz... burrunba ezti labor batek urratzen du iluntasuna)* Aupaaa... zer ondo egiten dudan hegan! Ikaragarri polita da hegan egitea, amatxo!

(Isilune baten ondoren, Ama sartu berriro, argia piztu eta sehaska aldera doa. Mairak lurrean, Mielxo ez dago sehaskan.)

Ama: *(Urduriak hartuta)* Mielxo...? Non zaude, Mielxo...?

(Alboetara begiratu baina ez du umea ikusten. Balkoiaren aldera joan eta ondo itxita dagoela ziurtatzen du. Amak ikusi ez arren, Mielxo ondoko armairuan dago pausatua. Bizkarrean eltxo hegala ditu, begiak iragazki motakoak.)

Mielxo: *(Amak entzuten ez duen off-ean, bihurri)* Jijiji.... ijijijijii...

Ama: *(Armairuaren gainean dagoela konturatu gabe)* Ai...! Ai ama...! Zatoz maitea, azkar! Mielxo... Mielxo ez dago!

Mielxo: *(Off-ean)* Aupa, amatxo! Begira! Hegan badakit! Armairuaren gainean nago!

Aita: *(Korrika etorriz)* Nola ez dagoela? Eltxo-sarea jarrita dago, ezin du ihes egin...

Ama: Baina ez dago. Ez duzu ikusten? Hau zorigaitza...! Zer egin dugu gaizki hau guri gertatu behar izateko?

Aita: Lasaitu, maitea, nonbait egongo da.

Mielxo: *(Off-ean)* Amatxo, politta, zergatik egiten duzu negar?

(Brzzzzzz... gurasoen arreta erakartzeko hegaltxoak astintzen ditu Mielxok)

Aita: *(Hegaltxo berrunak erakarriz)* Hara, armairuaren gainean dago, begira...! Ai ama, ea erortzen den! Non dago eskailera?

Mielxo: *(Off-ean)* Ireki besoak, amatxo, banoa! Mila muxu emango dizkizut eta!

Ama: Eskailera? Zertarako eskailera? Ez duzu ulertzen? Hizketan ikasi baino lehen, oinez ere ikasi baino lehen, ez du bada hegan ikasi horrek? Zertarako behar du eskailera? Jaisteko ez behintzat.

Aita: Eskerrak sarea jarri dugula, azkenean ez da ideia txarra izan.

Ama: Baina zer egin dugu gaizki?

Aita: Itxoin.

(Atera egiten da Aita korrika.)

Mieltxo: *(Brzzz... hegalak astinduz, hegan egiteko prest, off-ean)* Ireki besoak, amatxo, banoa-eta!

(Aita sartzen da korrika, tximeletak harrapatzeko sare handi bat dakarrela.)

Ama: *(Harriduraz)* Nondik atera duzu hori?

Aita: Atzo erosi nuen, batek daki zeri egin beharko diogu aurre aurrerantzean.

Ama: Ai ene, baina zer egin dugu gaizki? Esan, zer egin dugu? Zer egin...? Esan, mesedez...

(Ateriaz) Ezin dut gehiago, pastilla bat hartu behar dut.

Mieltxo: *(Of-ean)* Amatxo, politta, zergatik ez didazu muxu bat eman nahi? Mila emateko gogoia daukat nik.

(Salto egiten du Mieltxok. Salto egitearekin batera ilunak hartzen du eszenatokia.)

6. Eszena: Etxean. Gurasoen lagunen bisita.

7.

(Giro berotsua. Etxeko egongelan Aita eta Ama, kamiseta, praka-motz eta horrelako arropa arin jantzita. Ateko txirrina entzuten da. Aita doa irekitzera. Bikote bat da. Aitaren txikitako laguna da Gizona, Emakumea bere bikotekidea da, eskuan lore sorta bat dakarrena. Harrera egiten die Aitak.)

Aita: Aupa, zer moduz? Hauek gutaz ahaztu eta ez dira jada etorriko, horixe pentsatzen hasiak ginen. Zer, trafiko handia?

Emakumea: Zer trafiko eta zer... *(Senarra seinalatuz)* Honek, honek du errua, etxetik atera ere ezin da honekin.

Gizona: O, jakina, ni naiz erruduna, beti naiz erruduna. Badakizu zergatik jarraitzen duen nirekin? Erru guztiak kargatuko duen astoa ondoan edukitzeagatik, horrexegatik besterik ez du ospa egin.

Emakumea: Kasurik ez, astoaren autodefinizioan baino ez du arrazoirik.

Aita: *(Emakumeari, konplize)* Dakizkidan guztiak kontatuko banitu... txikitatik ezagutzen dut nik hau, ez ahaztu. Tira, sartu, sartu barrura, azkar; leihoetan bai, baina jarri gabe daukagu oraindik ateko sarea eta.

(Sartzen dira.)

Emakumea: Kaixo, zer moduz? Zer moduz gure amatxo berria?

Ama: Erantzuten jakingo banu. Badakizu? Ez dakit ama edo erle erregina ote naizen.

Emakumea: Ez esan hori, neska. *(Oparia emanaz)* Tori, lore sorta eder hau ekarri dizugu.

Ama: Loreak... asko maite nituen nik lehen. Orain, ez dakit... Mieltxok aterako die zuku gehiago nik baino.

Gizona: Ikusten? Ez genuen lore sortarik ekarri behar, ez lore sortarik ez inongo lore motarik, tristatu egingo zela esan dizut.

Aita: Ezta pentsatu ere, gizon, jakingo bazenu zer nolako dirutza gastatu behar dugun loretan! Potitotan ez, baina loretan...

Gizona: Eskerrak mutila den, ezta? Ze, oker ez banago, eltxo arrak loreen nektarrez elikatzen dira bakarrik, baina emeak... eltxo emeak animaliak ziztatu ondoren zurgatzen duten odolaz elikatzen omen dira. Okerragoa litzateke orduan, Drakulatxo bat etxean!

Emakumea: Ikusten? Astoa. Astoa, ez du berak ere esan? Asto galanta gainera! Baina jakin al daiteke zergatik aipatu behar dituzu horiek orain, hemen? Odola eta Drakula eta... e?

Ama: Ez, baina arrazoia du. Gauza bera irakurri dut wikipedian nik ere.

Emakumea: Baina, tira, ez da beti horrela izango, ezta? Loreen nektarez-eta elikatzea, esan nahi dut; handitan normal jango duela umeak, alegia, txorizo, txuleta, babarrunak...

Gizona: Eta oinez normal ibili, eta hitz egin...

Ama: Zeinek daki. Internetek ez daki, behintzat.

Gizona: Inork ez daki, beraz.

Ama: Edozein kasuan, nik maite dut; berak gorrotatzen nauela uste arren, nik maite dut. Ni naiz bere ama eta nik erditu dut horrela; zerbait gaizki egingo nuen eta horrela erditu. Eta orain ez du nire titia nahi horregatik.

Emakumea: Kendu hori burutik, maitea.

Gizona: Ezin duzu hori esan, emakume.

Ama: Ez dut esango orduan. Baina pentsatu, pentsatuko dut.

Gizona: Lasai, normal ibiliko da, eta normal hitz egingo du, taxuz hitz egin gainera, ez aitak bezala.

Aita: Tte, tte, tte...

Gizona: Denboratxo bat beharko du, horixe besterik ez da, umeak ez dira egun batean pertsona egiten.

Ama: Batek daki. Inork ez daki. Wikipediak ez daki behintzat.

Aita: Bada, gure amonak bai, gure amonak bazekien hori, laztana, "Eulia bakarrik goizean ume, eta arratsaldean amandre", halaxe esaten zuen.

Ama: Eta? Zer esan nahi duzu horrekin?

Aita: Bada, hori, (*Lagunaz*) honek esan duena. Ez pentsa, honek, gutxitan, baina batzuetan badu arrazoia...

Gizona: *(Moztuz, itxurazko protestan)* Aizu...

Aita: *(Kasurik ez, Amari)* Bada, hori, bakoitzak baduela bere-berea den tempoa helduarora iristeko, horixe esan nahi zuen gure amonak. Euliak euliena eta gizakiak gizakiona. Ez zuen esaten, adibidez, “Gizona goizean ume, eta arratsaldean... ez dakit, igeltsero”, ez? Bada, horixe, bakoitzak bere tempoa, eta gure Mieltxok ere, berdin, bere tempoa izango du hazteko, besterik gabe, eta utzi egin behar diogula...

Ama: Ez dut ulertzen zer esan nahi duzun... ez dakit gure semea eltxo edo igeltsero izango ote den azkenean. Ez duzu argi hitz egiten...

Aita: Ezetz, maitea, eltxoek eltxoena, gizakiek gizakiena, eta Mieltxok Mieltxoren tempo eta abiadura izango dituela, horixe besterik ez. Eta itxaron egin behar dugula, ikusiko da.

Ama: Susmoa dut etsita zaudela ume baten eta eltxo baten, bien aldi berean, aita izateari...

(Aitak ez du erantzuten. Zer erantzuten ez daki agian. Isilune deserosoa sortzen da. Emakumea saiatuko da giroa gozatzen.)

Emakumea: Zer tempo eta zer... esperpento. Umea, umea izango da, jakina. Zer izan behar du bestela! Hain zuzen, begira... begira ekarri dugun beste opari hau...

Ama: Zer da? Liburu bat ematen du.

Gizona: Nik aukeratutakoa, noski, ze nik banekien lore sortarena ez zela oso... fina, nolabait esateko, konnotazioak dituela alegia.

Emakumea: Zuk aukeratutakoa, zuk aukeratutakoa... Liburu-dendako morroiak aukeratu du, ez esan orain. Horrexegatik iritsi gara hain berandu, honek liburu bat oparitzearekin tematu baina gero ez zekien zer liburu oparitu. Lunbagoak jo eta ohean eroritako farola moduan egon zenean irakurri zuen azkena, kontuak atera.

Gizona: Ez kasurik egin, txantxetan ari da. Tipoari zer nahi genuen esplikatut gutxi gorabehera eta berak aholkatu digu. Oso ona da, klasiko bat. Tori, loak umea hartu bitartean irakurtzeko.

Ama: *(Oparitarako papera kenduz, azala eta atzeko azaleko argazkia begiratzuz)* Arraroa du azala... Ai ene! Ikusi duzue egilearen argazkia? Hori bai tipo iluna. Ez dakit, gizon hori ez da inoiz zoriontsu izan.

Aita: Ikusten? Bonolotoa asmatzeko gauza ez, baina morroi baten argazkia ikusi eta taka!
Berehala asmatzen dizu haren ezkutuko tristezia guztiak, errazago bailitzan.

Ama: Ui, duda egiten duzu, ala? Bonolotoa baino askoz errazagoa da pertsona baten begiradan asmatzea. Azken batean, begiek ez dakite gezurrik esaten; zenbakiek, ordea, ufa...

Aita: Zenbakiek bai?

Ama: Zenbakiek? Zenbakiek ez dakizu askotan ezta zer demonio esan nahi duten.

Aita: Ekarri, ekarri, ekarri liburu hori... Badakizue? Azken orrialdetik hastea gustatzen zait niri. Azken esaldia irakurri eta, gustatzen bazait, orduan pizten zait aurreko guztia irakurtzeko gogoia, azken esaldi horri zentzua ematen dion aurreko guztia. (*Azken orrialdera joz eta irakurriz*) Ea...“...haren gorpuzkera lirainak gurasoen proiektu eta asmo onak baieztatzea baino ez zuen egin”. Amaiera puntua. (*Bat-bateko pozak hartuta*) Hara...! Guretzat propio idatzita dagoela ematen du. Entzun duzu, maitea? ...Haren “gorpuzkera lirainak”, gurasoen “proiektu eta asmo onak”, baieztatzea “baino ez zuen egin”. Mieltxoz ari dela ematen du, gorpuzkera liraina izango du azkenean; eta gutaz ere ari da, gure proiektu eta asmo onez ere bai. Eta ondo bukatzen da gainera. (*Benetako esker onez*) Eskerrik asko, benetako lagunak zarete.

Gizona: Esan ez dizuet, bada? Nik aukeratutakoa.

Aita: Nahiz eta ume-umea izan oraindik eta berak tutik ez ulertu, paragrafo bat irakurriko diot egunero, esalditxo bat baino ez bada ere, baina irakurriko diot.

Ama: Ondo bukatzeak ez du esan nahi Mieltxorentzat liburu aproposa denik... (*Liburua eskutik kenduz Aitari*) Gainera, utzi, utzidazu niri, lehenengo esaldia irakurtzea gustatzen zait niri, lehenengoak kili-kili ez badit egiten... malo. (*Irakurtzeari ekiten dio*) “Goiz batean, loaldi aztoragarriaren ostean, Gregorio Samsa zomorro zatar bihurturik esnatu zen”. Ai ene...! (*Aurpegiera aldrebestuta*) Kendu hau nire bistatik...! Zomorro zatar bihurturik...

(*Ilun.*)

7. Eszena: Aitaren txikitako lagunaren deklaraziotik hartuta.

(Bisitan joandako Gizonak eskuarekin eltxo-sarea apur bat altxatu eta, kontu handiz zirrikitutik inork ez ihes egin ahal izateko, beste aldera egiten du, agertokiaren aurreko aldera, eta, auzitegiaren aurrean egongo balitz bezala, deklaratzeari ekiten dio.)

Ez ziola irakurriko

eta ez ziola irakurriko

eta ez genion beste hitzik atera amari, epaile andrea.

Kale egin genuen, beraz, lehenengo bisita hartan.

Guk lagundu nahi

baina...

belearen tankerakoa,

belearen familiakoen tankerako omen zen ama nonbait,

ez hontzaren tankerakoa,

eta horregatik.

Ai

barkatu

barkatu, epaile andrea,

lanbidearen... nola esan, ajeak dituzu hauek,

konturatu gabe,

azkenean guztioi gertatzen zaigu,

gure eguneroko ihardunean erabiltzen ditugun antiojoekin begiratzen dugula dena,

eta agian ez da ondo ulertu nire azalpena,

barkatu.

Biologo naiz ni,
ornitologo zehazki,
hegaztien bizimodu eta ohituretan espezializatua, hain zuzen,
eta nahiz eta hor aipatzen den hontza eta belearen bereizketa hori,
berez, biologiaren eremutik kanpo geratu
eta antropologiaren esparruan kokatu beharko genukeen,
tira, beti gustatu izan zaizkit horrelako kontutxoak,
atsotitzek gordetzen dituztenak,
jakinduria ez letratuaren forma horiek erakusten dizkigutenak...

Ezen

badakizu esaera zaharrak zer esaten duen, ezta?

“Hontzari bere umeak eder”

nahiz eta gero umeak astoaren ipurdia baino itsusiagoak izan akaso, baina tira,
hontzari bere umeak eder.

Bada, ez

Mieltxoren amak ez,

berak ez zuen hontzarena egiten

ez zuen hontzaren moduan jokatzeko,

bera belearen tankerakogoa zen:

Mieltxoren amak bere buruari egiten zion gerra

“Nolako belea

halako umea”

halaxe egiten zion eraso bere buruari,

baina esaldiari buelta emanda eta “nolako umea, halako belea” pentsatuz edo.

Bera belea izango balitz bezala.

Bakerik gutxi hor, beraz, bakerik ez zuen bere buruarekin amak,
eta horregatik kale egin guk opariekin lehenengo hartan.

Aita izan zen

lehenengo egunetako zurbiltasunak eta zorabioak nola edo hala pasatu eta gero

aita izan zen, nire ustez, egoerari neurria ondoen hartu ziona.

Ez dakit, hontzarena gogoratuz, “Aitari bere Mieltxo eder” ote dagoen esaterik
ez dut uste

baina,

begiak beti aurrerantz begiratzen duen hontzaren moduan,

aurrerantz begiratzen zuen berak ere

umearen etorkizuna zuela buruan esan nahi dut,

horregatik diot hontzaren tankerakoarena

beti aurrerantz begiratzen zuelako, Mieltxori dagokionez behintzat.

Hain zuzen

eta epaiketa honen harira datorrenez

gogoan dut nola, hizketan geundela, maitasunarena bota zuen bat-batean

*(Eltxo-sarearen atzeko aldea argitu eta Aita, Ama eta Emakumea agertzen dira
umearen logelan. Hizketan ari dira aurreko eszenan emandako dialogoaren segida
bailitzan. Aitak du hitza.)*

Aita: Badago kezkatzen nauen gauza bat. Bat bereziki, esan nahi dut, bat beste guztien
gainetik. Gure umeak lortuko al du noizbait maitatua izatea?

Emakumea: Zuek maitatzen duzue, ezta? Zergatik ez dugu besteok maitatu behar?

Ama: Nik bera maitatzen dut, asko, asko gainera, baina berak ni... Tira, esan ez dut esango; pentsatu baino ez dut egingo.

Aita: Ez, baina maitale batek maitatzen duen moduan esan nahi dut, ohean; ohean edo mendian, baina arimaz eta haragiaz.

(Isilik geratzen dira. Ilunak hartu eltxo-sarearen atzealdea.9

Nabarmena zen

Mieltxoren zoriona zuen ardura aitak

bestela ez zuen horrelako gauzetan burua nekatuko.

Gauza praktikoa ere bazen, bestetik, ezin da ukatu.

Nire lagun entomologoarena aipatu nuen orduan.

Orain ez dut oso ondo gogoratzen zergatik, baina orduan aipatu nuen

intentzio onez aipatu ere, laguntzeko asmotan.

Gero...

gero gertatu dena ikusita

damu egiten naiz orain

hobe aipatu izan ez banu.

Baina, tira, horrek ez du bueltarik

ezerk ez du bueltarik.

Unibertsitateko garaian elkarrekin ibiliak ginen,

Biologia fakultatean biak,

nahiz eta gero espezialitate desberdina hartu bakoitzak

hegaztien kontuak nik

intsektuenak berak.

(Ilun.)

8. Eszena: Etxean. Gurasoen lagunen bisita (segida).

(Eltxo-sarearen atzeko aldean, Mieltxoren logela ikusten da. Haizagailua martxan. Umea lo dago. Sehaskaren bueltan Aita, Ama eta Emakumea daude, umeari begira. Eltxo-sarearen aurreko aldean Gizona dago.)

Ama: Begira, lo dago orain.

Emakumea: *(Nazka keinua ezin ezkutatzuz)* Aitaren... Barkatu, lehenengo aldia da ikusten dudala. *(Higuina menderatuz)* Dena dela, nola esango nuke, larba itxura handiagoa izango zuela espero nuen.

Aita: Ez pentsa; kontutan hartu, eltxo izateko, eltxo heldua dela dagoeneko. Zaharra, alegia. Pertsona izateko, berriz... ez dakigu. Inork ez daki.

Emakumea: Baina medikuek eta zerbait esango dizuete, ezta? Zerbait egin ahal izango dute.

Ama: Pediatrak ondo dagoela esan zigun, eta gauza bera beste espezialitatekoek, kardiologoak, neurologoak, osteopatak, barne medikuntzako espezialistak, oto...irriñoarin...gogoak... ai ene, hori izen aldrebasa, trabatu eta gaizki esaten dut beti.

Aita: O-to-rri-no-larin-gologoak.

Ama: Horixe. Psikologoak halako zera bat sumatu zion, baina lasai egoteko, normala zela. Tira, normala, Mieltxoren egoera... harrigarria, nolabait esateko, kontutan hartuta hain harritzeko ez zela esan zuen, pasatuko zitzaiola.

Aita: Oftalmologoak berak ere ez zion garrantzia handirik eman haren begiei. Koladore edo iragazki motako begi kontuetan ez zegoela batere jantzita esan zuen, baina nabarmena omen zen oso ondo ikusten zuela.

Emakumea: Baina ondo ikusten du?

Ama: Bai, niri begira harrapatzen dut askotan.

Emakumea: Mementoz ez dago inongo arazorik, beraz.

Aita: Ez, mementoz ez, baina badago kezkatzen nauen gauza bat. Bat bereziki, esan nahi dut, bat beste guztien gainetik. Lortuko al du noizbait maitatua izatea?

Emakumea: Zergatik ez? Zuek maitatzen duzue, ezta? Zergatik ez dugu besteok maitatu behar?

Ama: Nik bera maitatzen dut, asko, asko gainera, baina berak ni... Tira, esan ez dut esango, pentsatu baino ez dut egingo.

Aita: Ez, baina maitale batek maitatzen duen moduan esan nahi dut, ohean; ohean edo mendian, baina arimaz eta haragiaz. *(Eltxo-sarearen aurrealdean dagoen lagunaren aldera bat-batean)* Zuk zer uste duzu, lortuko al du noizbait modu horretan maitatua izatea? Biologian eta animalien kontuetan aditua zara...

(Aurrekoan agertokiaren aurreko aldera pasatzeko egin duen moduan, bada modu berean egiten du Gizonak atzeko aldera itzultzeko: eskuarekin eltxo-sarea apur bat altxatu eta, kontu handiz zirrikitutik inork ez ihes egin ahal izateko, eltxo-sarearen atzeko aldera pasatzen da. Besteen solasean integratzen da.)

Gizona: Aizu, motel, mundu honetara etortze hutsak ez dio inori halako sexu-gau zoro bat ziurtatzen, e!

Aita: Ezta behin ere ez? Edo, gau izan gabe, ezta arratsalde bat baino ez bada ere? Tira, munstro itsusi bat izan ezean, esan nahi dut, noski.

Ama: Baina Mieltxo ez da munstro bat! Ez da itsusia gainera, begiak apur bat arraroak ditu, besterik ez.

Aita: Horregatik, guretzat ez, laztana; baina neska batentzat...

Emakumea: Eta... ez duzue pentsatu...? Nola esango dut... Tira, zaila zait, baina ez duzue pentsatu...? Ez duzue pentsatu, zera... hegalkak kentzea? Moztea, alegia. Eta begiak ateratzea, bide batez.

Ama: Ai ama...

Aita: *(Isilune labur eta gero)* Nik... bai, onartu behar dut. Egun hauetan, batzuetan pentsatu dut.

Emakumea: *(Bere Gizonari)* Ornitologo zara zu, zer gertatzen zaio hegazti bati hegalkak kentzen badizkiozu? Gainera, Mieltxok besoak ditu...

Gizona: Baina Mieltxo ez da hegazti, Mieltxo eltxo da, intsektua; tira, parte batean behintzat. Parte batean... edo ez dakit, baina desberdina dela esan nahi dut, demonio.

Aita: Beno, gogoratzen bazara, txikitan, euliei hegalak kentzen genizkien batzuetan. Eulia harrapatu, hegalak kendu, eta, lupa batekin, haren gainean kontzentratzen genituen eguzki izpiak...

Gizona: Azkar-azkar egiten zuten korrika beraien hanka txikitxoekin, ihes egin nahian, eta guk haien atzetik...

Aita: Lupa eskuan haien atzetik, eguzki izpiak haien gainean kontzentratu nahian. Erre usaina hasten zenean bukatzen zen kontua.

Emakumea: Sadiko nazkagarriak...!

Gizona: Jakinminak bultzatuta egiten genuen, e! Esperimentatzeko, alegia. Ea zer gertatzen zen jakiteko. Behin erre usaina sentitu eta paradigma ezarrita ez genuen euli gehiago harrapatu berriro, benetan.

Emakumea: Ja...! Eta nik sinetsi! Orain ulertzen dut zergatik egin zinen biologo. Bai, bai, lasai-lasai "esperimentatzeko", sadiko hori!

Aita: Umeak ginen, maliziarik gabekoak

Ama: Hegalak kentzea, ez dakit, baina zuk zeuk erditu duzun umeari begiak kentzea, beren zulotik begiak ateratzea... hori Antigona baino ez zuen egin. Eta ni ez naiz Antigona.

Gizona: Antigona? Baina Antigona ez zen anaiaren gorpua...?

Ama: Antigona edo Medea edo Jokasta edo ez dakit, tragedia grekoen emakume gogor horietako batek edozein kasuan. Wikipedian irakurri nuen nik.

Gizona: Tira, nahi baduzue, nire unibertsitate garaiko lagun batekin hitz egin dezaket, entomologoa da.

Ama: *(Hitzarekin trabatuta)* Entromolo...

Gizona: En-to-mo-logoa, grekera klasikotik dator.

Ama: Entromologoa. Ikusten? Greziar klasiko alproja horiek bazterrak nahasten beti, jendearen bizitza zailtzen.

Gizona: Biologiaren atal bat da Entomologia, intsektuak aztertzen dituen.

Emakumea: Orduan, zure lagun hori zer, maitea, beste sadiko bat?

Gizona: Probatzeagatik... Kontsultatu dituzuen beste adituek asmatu ez dutena asmatuko du berak agian.

Ama: Beren zultik begiak ateratzea... ez, ez, ez, gorrotatzen dudala pentsatuko du gainera.

(Isilune) Den bezala maitatuko dut nik, bere hegalekin, bere bi koladore motako begiekin, nahiz eta berak... pentsatu bai, baina ez dut esango.

(Ilun.)

9. Eszena. Etxean. Gauez.

(Gaua da, lotara joateko ordua. Argi mehe batek argituta, erdi-itzaletan dagoen eltxo-sarearen atzeko aldean Mieltxoren logela antzematen da. Haizagailua itzalita dago. Mieltxo sehaska ondo-ondoko paretan dago pausatuta, logelako atearen aldera begira-begira. Urduriak edo irrika batek hartuta, mugimendu txikiak egiten ditu, zerbait esperoan bezala edo.)

Mieltxo: *(Off-ean)* Jopeeee... aita, ordua da...

(Halako batean, logelako atean mugimenduren bat sumatzen da. Aita da, gaueroko lo aurreko bisita egitera dator. Mugimendua sumatu Mieltxok eta, salto eginez, hegalditxo labur bat egiten du txikia zaion sehaskaraino. Erdi-itzalen babesak ahalbidetzen du Aita ezertaz ez konturatzea.)

Pitxer txiki batean bi lore eta besapean liburu bat dakartzala, Aita sartzen da pijamaz jantzita. Argia piztu eta sehaskaren ondoan esertzen da. Loreak ikustean poz keinuak egiten ditu Mieltxok.)

Aita: *(Loreetako bat luzatuz)* Tori...

(Umeak lorea hartu eta gustu handiz miazkatzen du.)

Mieltxo: Berzzzz... tea.

Aita: Zer, hizketan hasteko asmotan? Baina zein azkarra den gure umea! *(Bigarren lorea luzatzen dio)* Gustukoak dituzu, e? Jatun hori... *(Umeak bigarren lorea ere miazkatzen bukatutakoan, mahai gainekoan uzten du Aitak pitxerra)* Tira, jarraituko dugu liburua irakurtzen, ados? Gogoratzen zara non utzi genuen atzo, ezta? Gregorio bere gelan barrutik giltzez itxita dagoela, bai familiakoek eta baita almagaren gerenteak ere atea irekitzeko eskatzen diote; baina, jakina, Gregorio koitaduak ezin die erantzun. Beno, bere zomorro ahots zatarraz erantzuten die, bai, baina besteek ezin diote ulertzen, eta orduan, egoeraren larritasunaz konturatuta, mediku eta sarrailagile baten bila joaten dira besteak. Bai, gogoratzen zara? *(Tripa beteta, baietz, jarraitzeko adierazten dio semeak keinu batez)* Ongi, utzitako lekuan jarraituko dut: "Gregorio, askoz ere lasaiago zegoen.

Haren hitzak ulergaitzak ziren zirudienez, nahiz eta berari txit garbiak iruditu, lehen baino garbiagoak, alafede, belarria ohitzen ari zitzaiolako agian. Baina garrantzitsuena zen besteak jabetu zirela ez-ohiko zerbait, normala ez zen zerbait, gertatzen ari zitzaiola eta lagunduko ziotela. Zama handia kendu zuen gainetik lehenengo erabakiak zeinen bizkor eta zer nolako irmotasunez hartu zituztela ikustean. Berrito ere gizakien taldeko sentitzen zen, eta medikua eta sarrailegilearengandik aurrerapen harrigarriak bezain bikainak espero zituen...”.

(Ama sarten da, oheratzeko arropaz jantzita bera ere. Haizagailuan erreparatu eta itzalita dagoela ikusten du. Piztera abiatzen da.)

Ama: Ez dakit zergatik itzali behar zenuen, itogarria da bero hau...

Aita: Horrela zegoen, nik ez dut itzali.

Ama: Piztuta utzi dut nik lehen, bada. *(Martxan jartzen du)* Gaixoa, ito egingo zaigu.... *(Gaiaz aldatuz)* Ez dakit zergatik irakurtzen diozun liburu hori. Ez irakurri, mesedez, ez nire aurrean behintzat, deprimitu egiten nau.

Aita: Baina zergatik, maitea? Gauza politak ditu liburuak; protagonistari normala ez den zerbait gertatu arren, etxekoek lagunduko diotela esaten du eta beste pertsonak bezala sentitzen dela berrito... Baina, batez ere, esperantza transmititzen du; azkenean, modu bikainean konponduko dela dena. Ulertzen? Protagonistak baduela esperantza hori.

Ama: Nik, haurdun nengoela, ez nuen hau espero; besterik espero nuen, baina begira... Zertarako balio du esperantzak? *(Edalontzian arreta jarritz)* Loreak nahiago izan ditu gaur ere...

Aita: Ikusiko bazenu ze gustura miazkatu dituen... Barkatu, ez nuen hori esan behar.

Ama: Ez du inporta.

(Isilik geratzen dira. Bitartean, Mieltxo lo geratu da sehaskan eta harengana zuzentzen dute begirada.)

Aita: *(Isiltasuna apurtzen)* Ikusten? Ondo egiten dio liburua irakurtzeak... lo geratu da.

Ama: Ume guztiak bezala, tripa bete eta gero... Normala izango da azkenean?

Aita: Tripa loreen nektar eta zukuez beteta, bestela... normal antzean da.

Ama: *(Isilune)* Beraz, titia zuri eman beharko dizut gaur ere.

Aita: Eman, eman lasai, bera lo dago dagoeneko, eta ni esna.

(Aitak liburua albo batera utzi eta gerritik hartzen du emakumea, sabela laztandu, titiak ukitu...)

Ama: Kontuz, itxoin, titiak ez ukitu, dena eskapatuko zait eta.

(Ohe-atorra kendu, argia itzali eta eszenaren hasierako argi mehearen konplizitateaz, maitasun jokoari ekiten dio bikoteak. Joko gero eta beroagoa, maitaleen hasperen gozoek adierazten duten moduan, umearen loa galarazten ez dutena. Halako batean baina, Amaren hasperenek goia jo, modu epikoan goia jo eta lo gozoak hartzen du bikotea. Amaren azken haspenenak, aldiz, esnatu egin du Mieltxo.)

Mieltxo: *(Off-ean, barne solasean)* Jope, amatxo

esnatu egin nauzu gaur ere.

Baina, lasai, ez dit inporta

badakit zergatik egin duzun,

hasperenak,

badakit zergatik egin dituzun

oi, oi, oi...

ui, ui, ui...

eta beste guztiak.

ji-ji-ji...

ederki dakit

ji-ji-ji...

Baina zu gustura bazaude ez dit inporta, e!

Badakizu?

Ametsa izan dut gaur.

Ilargiarekin amestu dut

Ilargia baino ederragorik ez dago munduan.

Bertara joaten nintzela amestu dut

brzzzzzz...

hegan

brzzzzzz...

brzzzzzz...

Bertara iritsi baina

eta

badakizu?

ji-ji-ji...

Zu zinen ilargia, amatxo!

Zu!

Konturatzen zara?

ZU!!

ZU ZARA NIRE ILARGIA!

(Off-a isildu eta hegaldiaren onomatopeia ahots goran ahoskatzen du Mieltxok sehaskan)

Brzzzzzzzzzz...

brzzzzzzzz...

brzzzz...

(Isilune bat eta gero, off-ean berriro umearen barne-solasa)

Ama

ba al dakizu zergatik

gauez

farolak piztu

eta haietara jo eltxoek?

Zergatik, hegan egin eta faroletara jo eltxoek?

Bada, ilargiarekin nahasten dituztelako!

Horrexegatik, amatxo,

ulertzen?

Beraien amekin gogoratzen direlako

beraien amatxoekin amesten dutelako

(Emeki hasieran, gero eta ozenago gero, eltxo baten hegaldiak sortzen duen soinu suabe etenezina entzuten da. Beste bat gehituko zaio gero, eta beste bat, eta beste...)

Haiek esana dakit nik

nire eltxo lagunek esana.

Ejem

eltxo lagun emeek esana, ama

ji, ji, ji...

Pila bat ditut

eltxo lagun emeak

bisitan datozkidanak

eta, zuek ikusten ez duzuenean,

sarea pixka bat altxatu

eta sartzen uzten diet nik

ji, ji, ji...

(Gogaikarria da azkeneko eltxo sailaren hegaldiak sortzen duen soinua. Argia piztu gabe, marmarka hasten da Aita, lo ezinean.)

Aita: Dio...! Eltxo zikinak!

Ama: Ixo! Ez esan hori, maitea, entzun egingo zaitu Mieltxok eta.

(Bere baitako pentsamenduetan murgilduta umea.)

Mieltxo: *(Off-ean)* Badakizu, amatxo?

Ji ji, ji...

lotsa ematen dit zuri kontatzeak

baina

oi, oi, oi...

zu hasperenka hasi

eta ama izan nahi dute nire eltxo lagun emeek!

Ama izateko gogoia sortzen zaie nonbait,
benetan.

Benoa, haiei ama izatea
eta niri... aita izatea
pixka bat

Edo, ez dakit,
liburu horren protagonistaren moduan,
ni ere "gizakien taldeko" sentitzen bainaiz.

Tira, batzuetan bai, behintzat.

Edo, ez dakit,
joan eta etorri egiten zait sentimendu hori
ze, batzuetan, eltxo emeek...
tentatu eta tentatu
eta ejem...
ez dakit.

(Eltxoen hegaldiak gogaiturik, Aitarene ezinegonare gero eta nabarmenagoa da.)

Aita: Gauza bera gauero, ez dago horrela lo egiterik, demonio!

Ama: Nik bezala egin, sartu burua maindire azpian.

Aita: Bai, eta ito orduan! Eltxo madarikatuak, ez dakit nola sartzen diren...!

(Nekaezina umea.)

Mieltxo: *(Off-ean)* Benetan, ama

ez dakit nori bururatu zitzaion

sarea jartzearena.

Larba nintzenean, ez dut esaten

baina orain

sasoian nagoela...

eta, gainera, eltxo emeek...

ez dakit nola esan,

ez dakit oraindik nire gustuko tipoak diren

baina nirekin hain “interesatuak”

eta hain “interesgarriak” agertzen direnean...

erraza da niretzat sarea kentzea!

(Burrunba gehiago ezin jasan, lehertu egiten da Aita azkenean. Altxa eta argi guztiak pizten ditu sarraskia egiteko prest.)

Aita: *(Senetik aterata)* Ekarri, ekarri eskopeta, tiro eta akatuko ditut, dio!

Ama: Tontakeriarik ez egin eta zatoz nire ondora. Gure umeak ez du errurik gainera.

Aita: Ederki ezagutzen ditut! Horiek loreen nektarrez ez dira elikatzen. Eltxo emeak dira eta odola nahiago dute zikin horiek, odol beroa. Begira, begira nola nagoen, ziztadez beteta!

Ama: Esan dizut, sartu burua maindire azpian! Zure semearengatik ez baduzu hori egiten...

Aita: *(Ernegazioz)* Nire esku dagoen guztia egiten dut, ez duzu ikusten? *(Arnasa hartu eta apur bat baretuz)* Barkatu, barkatu, maitea. Ez nuen horrela esan nahi. Baina egia da nire esku dagoen guztia egiten dudala, gure esku dagoen guzti-guztia egiten dugula, eta hala ere... *(Isilunea)* Erabaki bat hartu behar dugu.

Ama: Badakizu zer pentsatzen dudan. Inork ez dizkio hegalak moztuko, inork ez dizkio begiak aterako, ez ni bizirik nagoen bitartean behintzat.

Aita: Baina normala litzateke orduan. Esan nahi dut, beste edozein itsu bezala litzateke, bere makilarekin, bere txakurrarekin... ez ginateke lehenengoak izango seme itsu bat izaten, beste guraso askok bezala, aurrera aterako genuke gure umea, ez duzu ulertzen? Normalak izango ginateke geu ere.

Ama: Ahaztu hori, gu ez gara jada inoiz normalak izango. Ez behintzat normalak izateaz orain arte pentsatu duguna. Gainera, zeinek esaten dizu begiak aterata eta hegala kenduta zerbait konponduko dugunik? Agian, agian eltxo moduan pentsatzen du, eta orduan zer?

Aita: Hitz egingo balu gutxienez... Lehen hitz bat esan duela iruditu zait. Ikasiko du agian.

Ama: Zerbait egitekotan, zure lagunak ezagutzen duen entomologo horrengana eramango nuke.

Aita: Entomologo, en-to-mo-logoa.

Ama: Ai ene, ez dut inoiz ikasiko...

(Ilun.)

2. EKITALDIA

1. Eszena: Entomologoaren Neska Laguntzailearen deklaraziotik hartuta.

(Auzitegiaren aurrean deklaratzeko.)

Jakina

nik ez ditut haien arteko guzti-guztiak ezagutzen,

nagusia eta, zera, Mieltxo horren arteko guzti-guztiak esan nahi dut.

Laguntzailea baino ez nintzen ni

bekaduna, propio esateko,

Biologia Zientzien Fakultateko Entomologia Saileko bekaduna, eta beraz...

entomologo jaun doktorearen morroi kafe-eramaile prestua.

Hala ere, gauza askotan behintzat,

eguneroko kontu txiki

edo ez hain txiki

horietan

inork gutxik jakingo du nik baino gehiago.

Zentzu horretan, nagusiak

unibertsitate garaiko bere aspaldiko lagunaren bisita jaso zuenean

zorotzat hartu zuela

esan behar dut.

Ederki gogoratzen dut, epaile andrea

hain gauza, nola esan...

hain gauza sinestezina zen, ze...

bere laguna joan eta berehala deitu ninduen bere bulegora

“Ez dago bueltarik, mundua jota dago!”, esan zidan

“Kolega bat etorri oraintxe eta ez dit, bada, esan

bere lagun baten emazteak eltxo bat erditu berri duela!

Eltxo bat

ulertzen?

Eltxo bat!!

Eta ikusi duela, nire kolegak berak ere, ikusia duela esaten du!!”,

ezin kolkorako gorde eta barrez lehertzen bota zidan aurpegira plaust,

“Umeak alde ez egiteko, eltxo-sare batez estali omen dute etxea, pentsa!

Eta nik ikustea nahi dute orain”

modu aldrebesean baina esplikatu zidan azkenean,

“Ai, ene lagun gizajoa

hainbeste denbora hegaztiekin lan egin

eta

hegaztien gripeak ez

oilalokaren zoroak harrapatu azkenean!

Horixe pentsatu dut”.

Kontua da hain serio demonio ari omen zela bere laguna

ezen bere burua behartuta ikusi nire nagusiak

eta hitzordu bat jarriko ziela agindu zion kolegari

“eltxo” ikusi eta bere iritzi zientifikoa emateko.

Horixe agindu zion.

Gutziz lanpetuta zebilela eta kongresu baten aitzakiaz,
bizpahiru astez atzeratu zuen agindutako hitzordua zehazteko.
Badakizu, epaile andrea,
denbora pasatzen utzi
ea horrela zoroa ere deskuiduan edo pasatzen zitzaien.

Bai zera pasatu!

Areagotu!

Areagotu egin zen!

Zoroa zoroagotu!

Hala ematen zuen behintzat
esandako epea urruti zegoela oraindik
eta deika eta deika hasi baitzen nire nagusiaren kolega
premia handia zutela-eta
gertatzen ari zena ez zela batere normala
“eltxo” hizketan hasia zela
eta gizonduta zegoela
eta nik zer dakit...
eta kontsultarako hitzordua aurreratzeko eske.
Noski, nagusiak men egin zuen azkenean, ze erremedio
lan egiteko bake apur bat nahi bazuen behintzat
eman egin zien hitzordua.

Baina, begira gero...

zeinek esango zuen horrelakorik gertatu beharko zuenik...

Egia da,

egia da, ulertzen dut, epaile andrea,

lekuko bat baino ez naiz,

ez naiz nor zer gertatu zen esateko,

horixe, gertaerak, gertaera zehatzak eta beraien horretan,

haritik aldendu gabe,

horixe, bai,

banoa.

Gurasoen konpainian etorri zen Mieltxo lehenengo aldian.

Ordua baino lehen etorri zirenez

nik idazkari lanak egin

eta nagusiaren bulegora eraman nituen

bertan itxaroteko.

Nik, egia nahi baduzu, epaile andrea

nik ez nion ezer arrarorik sumatu lehenengo une hartan

mutil gaztea ematen zuen

arrunta

nire gusturako arrunta

eta ez pentsa oso neska... zorrotza naizenik mutil kontuetan

baina beste asko bezalakoa zen

betaurreko beltzekin...

Beno, janzkeran bai

hor bai

bazuen hor... zerbait arraroa

baina, tira

hainbeste moda arraro daude, ze...

Anekdota moduan

Mieltxo ikusi eta nagusiak esandakoa gogoratu nuen;

bai, etxean eltxo-sareak jarrita omen zituztela entzuna nion

umeak alde ez egiteko edo.

Eltxo-sareak harekin?

Bai zera!

Harekin, barroteak jarrita

barrote lodiak

bestela

berak nahi izanez gero...

zzziiuuu...!

sarea apurtu eta erraz egingo zuen ospa!

Izan ere, gero horrela jarri genuen laborategian,

barrote fin baina sendo batzuk jarri genituen

badaezpada.

(Ilun.)

2. Eszena: Entomologoaren bulegoan. Lehenengo aldia.

(Entomologoaren bulegoan daude gurasoak eta Mieltxo, Entomologoaren zain. Betaurreko beltzak janzen ditu umeak, eta hegala ez ditu ageri, arroparen azpian bilduta baitaramatza. Butakan eserita ezin egon Mieltxo, altxa eta paretan zintzilik dauden erakustaltzariak begiratzeari ekiten dio.)

Ama: Eseri zaitez, Mieltxo, formal egon.

Aita: Baina, maitea, butaka hauetan... ederki dakizu ez direla batere egokiak berarentzat.

Ama: Bai, baina... *(Mieltxori)* Ai, urduri jartzen nauzu, umea, ez dakit zeri begira zauden hor!

Aita: Utziozu begiratzen, emakume, ez du kalterik egiten. *(Altxatu eta begiratzeari ekiten dio berak ere)* Zomorroak dira, badakizu, orratzekin iltzatuak, tximeletak, kakalardoak, mariooratzak... *(Ahotsa jaitsiz)* Tira, eltxoak ere bai...

Ama: Ai ama... Esertzeko esan dizut, Mieltxo, azkar.

Mieltxo: *(Halako nazkaz, halako amorruz)* Zzzergatik? Zzzergatik iltzzatuta egon, amatxo?

(Amak erantzun bat lardaskatu baino lehen Entomologoa sartzen da.)

Entomologoa: *(Hiru bisitariei eskua luzatuz)* Hara, goiz nentorrelaren ustean eta, hara non, hemen zaudetela dagoeneko.

Aita: O, lasai, ez du inporta.

(Esertzera gonbidatzen ditu Entomologoak, hala egiten du berak ere. Zutik geratzen da Mieltxo.)

Entomologoa: Beno, gure lagun komunak bidalitako txostenean esaten zuenez, zera, kasu harrigarri baten aurrean egon beharko nintzateke. Ez dakit, eltxo baten antza edo ezaugarri batzuk zituen ume batez hitz egin zidan. Baina, zorionez, ez dut horrelakorik ikusten, hiru pertsona sano ditut nik nire aurrean.

Aita: Sano... barneko hausturak eta nahigabeak ez baditugu kontutan hartzen sano, baina...

Ama: *(Moztuz)* Ingurumarietan ez luzatu, laztana, luzeegia daukat nik mindura eta. Begira, entomologo jauna...

Entomologoa: En-to-mo-logoa. Badakit, izen arraroa gertatzen zaio jendeari, bai, baina ez kezkatu, ez du inporta.

Ama: (*Mielxo seinalatuz*) Begira... sinetsi edo ez, hiru hilabete eskas baino ez ditu. (*Karpeta bat luzatuz*) Hemen dituzu jaiotza agiria eta argazkiak, jaio zenetik gaurdaino egunez egun hartuak. Bideoak ere baditugu nahi izanez gero. Sinetsi edo ez, loreak jaten ditu; sinetsi edo ez, doinu arraro batez baina polito egiten du hizketan...

Aita: Zetekin eta eseekin, baina zetekin batez ere ditu arazoak, luzatu egiten ditu edo, baina azkar ari da hobetzen.

Ama: Sinetsi edo ez, eltxo baten begiak ditu, hegala ditu, eta hegan badaki. Tira, txikitan hobeto, ze, orain, hartu duen pisuarekin... Horretaz gain, sinetsi edo ez, guk ez dakigu zer egin. Guk aita edo ama izatea beste gauza bat zela uste genuen.

Aita: Mundua beste gauza bat zela, horixe da esan nahi dizuna, hau ez zela posible. Inork ez zigun ezer esan behintzat, baina... Eta ez dakigu zer egin.

Entomologoa: Tira, tira, ez dakit ni pertsona egokiena ote naizen zuei laguntzeko. Edozein kasuan...

Ama: Ez, burutik sano gaude, ez dugu psikiatrarik behar; ez besteak baino gehiago behintzat. Etorkizunean, auskalo.

Entomologoa: Ez nuen hori esan nahi, emakume, ez nuen hori... (*Mieltxorengan arreata jarritz*) Orduan, zu zara...

Mieltxo: Mieltxxxo, Mieltxo dut izzena. (*Paretako erakustaltzariak seinalatuz*) Zzzergatik? Zzzergatik iltzzzatu dituzzzu?

Aita: (*Mieltxoren galdera estali nahian*) Ikusten? Zetak batez ere.

Entomologoa: Baina hori ahoskatzeko arazo bat izan daiteke, besterik gabe, nik horretaz ez dut...

Mieltxo: Gaixxo bat da, ama, sssadiko bat, iltzzzatu eta hil egiten ditu.

Ama: (*Ez entzunarena eginez*) Kendu betaurrekoak, ume.

Mieltxo: Baina amatxxxo...

(*Gogoz kontra, betaurrekoak kendu Mieltxok eta agerian geratzen dira bere eltxo begiak, iragazki motakoak..*)

Entomologoa: Aitaren... *(Harridura ezin ezkutatuz)* Aitaren... culex pipiens!

Ama: Zer?

Entomologoa: Culex pipiens, eltxo arrunta, eltxo arrunt baten begiak dituzu horiek...
mikroskopiorik gabe ikusita, jakina. Gauza harrigarria...

Ama: Hegalak erakutsi, maitea.

(Aurreko moduan, arropa kendu eta agerian geratzen dira hegalak.)

Entomologoa: *(Aho zabalik)* Ez da posible...

Mieltxo: Zzzergatik egiten duzzzu, entomologo jauna? Zzzergatik iltzzzatu eta hil?

Aita: En-to-mo-logo esaten da, Mieltxo. *(Amari)* Dударik ez dago, zure semea da, ez da azterketa genetikorik egin behar jakiteko.

Ama: *(Entomologoari)* Hegan egitea nahi duzu?

Mieltxo: *(Protestaka)* Ama...!

Entomologoa: Ez, ez, ez, nahikoa da. Dena bat-batean ezin da. Denbora pixka bat behar dut hau guztia asimilatzeke.

(Ilun.)

3. Eszena: Etxean. Bi emakumeak.

(Lagunaren Emakumea etorri da bisitan. Egongelan dago. Eltxo-sarerik ez dago dagoeneko.)

Emakumea: *(Agerian ez dagoen Amarekin hizketan)* Ikusten dudanez, kendu egin duzue sarea.

Ama: *(Kanpotik)* Nola?

Emakumea: Sarea. Zera, Mieltxok alde ez egiteko sarea, kendu duzuela.

Ama: *(Kanpotik sartuz, erretilu batean infusio hartzekoak dakartzala)* A... Egia esan, hasieran beldur hori genuen, alde egingo zuela. Baina gero ez, gurekin nahi duela ikusi dugu, oso ume zintzoa da Mieltxo. Beno, ume edo...

Emakumea: Orduan...?

Ama: Eltxoak ez sartzeko, horrexegatik mantendu izan dugu sarea dezente. Maindire azpian egin behar izan dugu lo, pentsa, eta tapoiak jarrita belarrietan, bestela... Baina laborategian dagoenetik nabaritzen da Mieltxoren hutsunea; bai, ia eltxorik ez dago etxean; badakizu, eltxo emeak, odola zurruputzen dutenak. Tira, bat edo beste, baina betikoa.

Emakumea: Zer moduz entomologoarekin? Zer edo zer esan dizute? Egin dizkieten proben emaitzez, esan nahi dut.

Ama: *(Ilun)* Tira, ari dira. *(Isilune)* Bertan ez dute sarerik jarri. Bertan... bertan barroteak jarri dituzte. Jarri dizkiote.

Emakumea: Beno, ez gaizki hartu, neska, pertsona moduan tratatzen dutela esan nahi du horrek, ez zomorro moduan.

Ama: Ja, orduan... orduan guk, sarea jarrita, ez genuela pertsona moduan tratatzen esan nahi du horrek? Guk eltxo moduan?

Emakumea: Ai, ama, ez nahastu nik esandakoa, ez da hori...

Ama: Barroteak direla pertsonak tratatzeko modua orduan? Hori al da?

Emakumea: Ai, neska, hitzekin ari zara jolasten... egoera berezia da, haiek ere ez dakite zer daukaten esku artean...

Ama: Munstro bat agian? Gainera, ongi begiratuta, zer arazo dauka Mieltxok? Bera ondo dago, sano dago; esango nuke bera ez dela bere buruarekin gaizki sentitzen.

Emakumea: Zergatik eraman duzue entomologoarengana orduan?

Ama: Hain azkar doa dena... Umea edukitzea eta haztea beste gauza bat izango zela pentsatu genuen: nola esango nizuke, beste umeena bezala. Baina orain, konturatu baino lehen gizonduegin egin zaigu, eta... ez dakit damutzen hasia ez ote naizen.

Emakumea: Ez esan hori, ondo egin duzue.

Ama: Ikusiko bazenu lehenengo bisitan zer nolako amorruarekin galdetu zigun ea, zera, paretako paneletan, ea zergatik zeuden iltzatuta zomorroak. Ez du horretarako eraman dugunik pentsatuko, ezta? Ai ene, gorroto diogula pentsatuko du, ziur.

(Ilun.)

4. Eszena: Entomologoaren laborategian.

(Entomologoaren laborategia. Mahiak, artxibategiak, apalak, ordenagailuren bat, mikroskopioren bat... horrelako leku batean espero daitezkeen hornidurak. Aurkezpenak egiteko pantaila bat dago lku nabarmenean; hain zuzen, aurkezpen zientifikoren baten irudia ikus daiteke bertan. Lekuz kanpoko gauza bakarra: metalezko barrote fin batzuek ixten dute laugarren pareta.

Mieltxo pijamaz edo antzeko batez dago jantzita. Zain dago. Zain bitartean bertako gauzak ikuskatzen ematen du denbora, paretako erakustaltzariak, bertako tresneria, mikroskopia... Ordenagailu baten teklatura erakartzen du bere arreta. Tekla bat sakatu eta flop! pantailako irudia aldatzen da; beste bat sakatu, eta beste irudi bat agertzen da. Jolasean hasten da orduan, teklaturan saka eta saka, eta mota guztietako testuak, datuz betetako taulak, mikroskopioz hartutako irudiak... pasatzen dira Mieltxoren begi harrituen aurrean. Halako batean, tak, tekla bat sakatu eta, bere harridurarako, pantaila itzaltzen da. Tak, tak, tak sakatu berriro baina irudirik ez. Teklatura utzi eta apal batean dauden liburuetan jartzen du gero begia. Liburuetako batek bere arreta erakarri eta hartzeko keinua egiten du, baina bat-batean atea ireki eta berarentzat propio egokitu duten aulkitxoan esertzen da korrika.)

Entomologoa: *(Sartuz, adeitsu)* Egunon, Mieltxo, zer moduz?

(Erantzunik ez Mieltxok.)

Entomologoa: Zer, zure ez-hitz-egiteko jarrerarekin jarraitu behar duzu gaur ere?

Mieltxo: Brzzzz...

Entomologoa: Mutuarena ez egin, ume, badakit ederki hitz egiten duzula, etorri zinenean baino askoz hobeto. Zetak ere, dezente ondo ahoskatzen dituzu.

Mieltxo: O, bai, begira, begira zer ondo... Barzzzz... Berzzzz... Birzzzz... Borzzzz... Burzzzz...

Entomologoa: Ez didazu ziria sartuko, haserretzen zarenean baino ez zaizu azentua nabaritzen. Baina tira, jarraitu egin behar dugu, bestela... *(Mahai gainean dagoen karpeta bat hartuz)* Egun hauetan egin ditugun proba fisiko eta analisisen emaitzak

oraindik iritsi ez direnez, gaur... gaur zure... nola esan, zure psikea, zure barrua, ulertzen? aztertuko dugu. Test batzuk prestatu ditut...

Mieltxo: Burzzzz... Borzzzz... Birzzzz... Berzzzz... Barzzzz...

Entomologoa: *(Oharrak hartuz)* Ongi...

Mieltxo: Zer apuntatu duzu?

Entomologoa: Adarra jotzeko joera nabarmena duzula. Esan dizut, zure barne mekanismoak aztertu nahi ditut, zure erreakzioak, ulertzen?

Mieltxo: Ez errepikatu beti ulertzen?, ulertzen?, ulertzen?... Oso ulertzeko erraza zara.

Entomologoa: *(Oharra hartuz berriro)* Eta errebelde samarra gainera... Ez al da egia, ala?

(Entomologoari berak esandako guztiak baliagarriak gertatzen zaizkiola konturatuta, isilik geratzen da Mieltxo modu agerian.)

Entomologoa: *(Mieltxoren isiltasunari adi, oharrak hartuz berriro)* Ongi, oso ongi...

Mieltxo: *(Haserretsu)* Eta orain, zzzergatik apuntatzen duzzzu? Ez dut ezzzer esan eta!

Entomologoa: Ez haserretu, Mieltxo, zetekin trabatzea baino ez duzu lortzen. Gainera, laguntzeko nago ni hemen, zure laguna izatea gustatuko litzaidake.

Mieltxo: *(Oldarkor)* A, bai? Kendu barrote horiek orduan. Lagunak egiteko oso modu berezzzzia duzzzu, bai, barroteak jarrita! Inongo eltxoren buruan ezzz du horrelakorik kabitzzen, ez al dakizzzu? Apuntatu hori ere.

Entomologoa: *(Oharrak hartzeari utzi gabe)* Kenduko ditugu, bai, barroteak kenduko ditugu. Behar den garaian eta dena ondo badoa.

Mieltxo: Kentzzzeko esan dizzzut! Orain!! Hain zzzaila al da ulertzzen? Etxera nahi dut nik, gurassoekin nahi dut, gurassoekin urmael bat duen parke batera joan nahi dut, horixe bakarrik.

Entomologoa: Haiek ekarri zaituzte hona, zure gurasoek, ez ahaztu.

Mieltxo: Haiek... Kentzzzeko esssan dizzzut!!

(Amorruak hartu Mieltxo, brzzz... hegala astindu eta Entomologoarengana oldartzen da, hartutako oharrak kendu eta apurtu egiten dizkio. Mahai gaineke txirrina sakatzen

du gizonak, laguntza eske. Neska gazte laguntzaile bat sartzen da eta bien artean halako atorra hertsagarri batez lotzen dute Mieltxo borroka baten ondoren.)

Neska Laguntzailea: Ziztatu egin dizu?

Entomologoa: Ez. Ondo, ondo nago, lasai. Hartutako ohartxoak apurtu, hori bakarrik. Esan nizun, berak ez badu laguntzen, bereziki zaila izango da hemendik aurrerakoa. *(Mieltxori)* Ulertzen duzu orain zergatik jarri barroteak? Zure onerako dela konturatuko zara egun batean.

Mieltxo: Brzzzzzzzzzzzzzzzzzzzz...!

Neska Laguntzailea: *(Maitekiro, burua laztanduz)* Lagunduko badizugu zure laguntza ere beharko dugu, Mieltxo. Bestela, guk bakarrik...

(Arnasa sakon egin Mieltxok, Neska Laguntzailearen magalean burua jarri eta laztana onartzen du. Baretu egiten dela ematen du.)

Mieltxo: Bakean uztea baino ez dizuet eskatzen, beste laguntzarik ez dut behar. Nik...

Neska Laguntzailea: *(Moztuz)* Baina ulertu behar duzu...

(Ez mozteko keinua egiten dio Entomologoak, oharrak hartzeari ekin dio.)

Mieltxo: Ur geldoko lekuak ditut nik amets

urmaelak

padurak

putzuak...

Ez horma zuri lehor hauek

iltzatutako eltxoez estalita dauden

horma

mingarri hauek.

Neska Laguntzailea: Arazo bat duzula onartu beharko didazu, hala ere.

Mieltxo: Nik?

Bai,

zuek!

Zuek zarete nire arazoa!

Ondo nago

sano nago

bizitza osoa daukat nire aurrean

eta hegan badakit, aizu!

Ez dizu inbidiarik ematen?

Hegan jakiteak ez dizu inbidiarik ematen?

Benetan?

Zu ez zara oso normala orduan, bestela...

Tira, begi hauekin apur bat itsusia izango naiz zuretzat

hori egia da

baina zer!

Betaurreko beltzak jarri

eta zoriontsua den lehenengo itsu itxurakoa ez naiz izango, ezta?

Horregatik

benetan

zergatik ez didazue uzten bakean bizitzen?

Saiatzen behintzat.

(Sudurra Neska Laguntzailearengana zuzenduz, arnasa sakona hartzen du.)

Zergatik ez didazu atorra hau kentzen?

Ez dit zoriontsu izaten laguntzen...

(Ilun.)

5. Eszena: Entomologoaren Neska Laguntzailearen deklaraziotik hartuta (segida).

(Auzitegiaren aurrean deklaratzeko.)

Egindako proba, azterketa eta analisi guztien emaitzak jaso genituenean

nola esan...

ez, ez dakit, ez dago hitzik.

Bertigoa agian.

Bertigoa bai

baina ez edozein bertigoa

ez bertigo arrunta behintzat.

Bertigo izatekotan, astronautaren bertigoa.

Astronautak bere kapsularen eskotilara atera eta

unibertsoaren

hondoa

zuloa

huts infinitua

han behean, bere oinetara ikustean

sentitu behar duen bertigoaren antzekoa sentitu genuen.

Edo handiagoa oraindik, sakonagoa.

Azken batean, astronautak

eskotilatik ilunaldere pausoa ematean

kapsula utzi eta unibertsoaren sakon ilunaren aldera pausoa ematean...

zer

hortik, zer
heriotza baino zerbait ikaragarriagorik ez zaio etorriko
ez zaio gertatuko.

Eta berak badaki hori
ederki daki.

Gogoz kontra ere,
nola edo hala
denok daukagu barneratuta heriotza eta hil beharra,
zer esanik ez astronauta bazara...

Bertigo arrunta horregatik.

Baina emaitza haiek...
emaitza haiek
gure oinarrizko jakintzak eta usteak jartzen zituzten hankaz gora.

Ez, hankaz gora jarri, ez
ezabatu egiten zituzten bat-batean
flop!

kito bizitzarako genituen ziurtasunak,
aurreko guztiak ez zuen piperrik balio bat-batean
ezer ez genekien bat-batean
zulo beltza sortu gure buruan bat-batean
unibertsoaren huts infinitua gure buruan sortua bat-batean.

Eta horri
heriotzari baino beldur handiagoa diogu horri,
inongo ziurtasunik gabe bizitzeari.

Zuk ez?

Koldarrak gara, bai, epaile andrea

jainkoengan edota horoskopoetan besterik ez bada ere,

zerbaitetan behar dugu konfiantza apur bat bizirik jarraitzen ahal izateko.

Baina bai, barkatu, epaile andrea,

estratosferara joan naiz

ez dut zure galderari erantzun.

Datu eta zehaztasun zientifikoak perituen txostenetan daude

ez naiz orain horietan luzatuko.

Mieltxo eltxoa zen.

Eltxo eta gizakia aldi berean.

Haren genomaren azterketak ez zuen zalantza egiteko aukerarik ematen:

eltxoan eta gizakien egitura genetikoak biltzen zituen bere baitan

biak, eltxoena eta gizakiena

%100ean biltzen zituen

biak.

Hitz batean, mutazio baten aurrean geunden.

Ez dira egunero gertatzen

baina, tira, nola esan...

espezien eboluzioan mekanismo oinarritzkoenetarikoak

ohikoenak

izaten dira mutazioak,

bizitzaren trikimailu bat,

azkenean, ingurugiroaren baldintza aldakorretara adaptatzeko bide bat da
bizirauteko bide bat.

Eta, biziraupen aldetik, argi da:

intsektuak dira, hain zuzen, ornogabe guztien artean,
arrakasta ebolutibo ikusgarriena lortu duten izakiak.

Zer pentsa ematen du horrek, ezta?

Esan nahi dut

mutazio baten aurrean geundela onartuta

gerta zitekeen Mieltxo, espezie batek inguruan dituen baldintza berrietan bizirauteko bidean,
pauso bat izatea

pauso baliagarria agian

edo ez,

ezin jakin hori, etorkizunak esango zuen.

Baina pauso bat izan zitekeela onartuta

bazegoen orduan galdera egiterik, ezta?

Hau da, nondik nora zihoan kontua? Zein norabidean, ulertzen?

Gizakia zen intsektuen bizimoduetara adaptatzen ari zena?

Ala, alderantziz, intsektuak ziren gureratzen zirenak, nolabait esateko?

Jabetzen zara kontuaren garrantziaz?

Jabetzen gara?

Nik

une hartan behintzat

gizakion trazak antzematen nizkion gehien.

Adibidez

nirekin hain seko maiteminduta ikusten nuen, ze...

(Ilun.)

6. Eszena: Entomologoaren laborategian.

(Piztuta dagoen argiari pega-pega, sabaian dago Mieltxo. Liburu bat irakurtzen ari da, irakurri edo orriak pasatzen behintzat. Entomologoa sartzen da.)

Entomologoa: Zer egiten duzu hor? Jaitsi hortik. *(Kasurik ez Mieltxok eta insistituz)* Jaisteko esan dizut, kontxo.

Mieltxo: Ez zenuen nire “psssikea” aztertu nahi? Bada, hartu koaderno eta apuntatu: “argiari pega-pega egotea du gustuko”.

Entomologoa: Eta liburuak irakurtzea duzu gustuko? Irakurtzen al dakizu?

Mieltxo: Eta zuk, farolak piztu eta zergatik haietara jo eltxoek, ba al dakizu? E? Ba al dakizu? Ez? Nik esango dizut, apuntatu: ilargiarekin nahasten dituztelako. Farolak, bai, ilargiarekin nahastu eltxoek, bai. Zergatik? Beraien amekin gogoratu eta haiekin amesten dutelako, beraien amekin.

Entomologoa: *(Harriduraz, ezin ulertuz)* Nola? Ez dizut ulertzen?

Mieltxo: Bai, konplikatuegia zuretzat. Baina horixe gertatzen zait niri, amarekin gogoratzen naizela. Asko. Noiz utziko didazu ikusten?

Entomologoa: Jaitsi hortik eta hitz egingo dugu gero.

Mieltxo: *(Entzungorrena eginez)* Irakurtzen ote dakidan? Begira, apuntatu, Gregorio Samsa-ri buruz ari da, noski: “...eta, entretenitzeko, paretetan gora eta sabaian barrena ibiltzeko ohitura hartu zuen. Sabaian zintzilik egoten gustuko zuen bereziki; hura lurrean etzanda egotearen aldean guztiz desberdina zen: askoz libreago hartzen zuen arnasa, eta dardarizo xuabe-xuabeak sentitzen zituen gorputzean...”. *(Entomologoaren erreakzioari begira)* Zergatik duzu liburu hau hemen?

Entomologoa: Entomologoa naiz, badu lotura.

Mieltxo: Baina liburu honetan gizakien barrua azaltzen da, ezta? Ez zomorroena.

Entomologoa: Oraindik ez didazu erantzun. Orduan, badakizu irakurtzen, ezta?

Mieltxo: *(Misterioa luzatzeko tonuan)* A...! Agian buruz dakit liburua! Jakingo bazenu zer nolako ahalmena duten eltxoek gauzak gogoratzeko... *(Azalpena emanaz azkenean)* Aitak

irakurtzen zidan lo baino lehen. Tira, den-dena ez, bukaera ez zidan den-dena irakurri.
Egun batean irakurtzeari utzi zion bat-batean.

Entomologoa: Zergatik? Baldin badakizu...

Mieltxo: *(Isilune baten ondoren)* Maite nauelako suposatzen dut. Zerbaitetaz babesteko
ziurrenik. Zuk irakurriko didazu?

Entomologoa: Hortik jaitsi eta pentsatuko dut.

Mieltxo: Hara, txantaje egin nahian niri?

Entomologoa: Jaitsi eta ez dizut egingo.

Mieltxo: Barregarria zara.

Entomologoa: Jaitsi.

Mieltxo: Badakizu? Zuk eltxoak ikertzen dituzun moduan, nik gizakiak aztertuko ditut. Horixe
egingo dut, giza generoa aztertu. Eltxoen ikuspegitik ikertu, jakina. Eskubide izango dut,
ezta? Zu izango zara nire... nola deitzen zaie laborategietan erabiltzen diren sagutxo
horiei? Akuriak? Zu izango zara nire akuria!

Entomologoa: Ez nauzu behar, gizakia ere zara zu, zure alde gizatiarra ikertu eta listo.

Mieltxo: Zu entomologoa eta ni... Gizakiak ikertzen dituztenei nola deituko diete eltxoek...?
Tontomologoak agian? Zu entomologoa eta ni tontomologoa.

Entomologoa: *(Irriñobera)* Kontuz, esaten dituzun guztiak apuntatzen ari naiz.

Mieltxo: Umore zorrotza dudala, adibidez? Ez, ziztatzailea jarri hobeto.

Entomologoa: Tontomologoa... Txiste erraza ez al da? *(Gozo, baina irmo)* Tira, ez baduzu jaitsi
nahi, nik jaitsarazi beharko zaitut.

*(Une batez atera Entomologoa baina berehala itzultzen da, tximeletak harrapatzeko
sare handi-handi bat dakarrela, kirten luzekoa.)*

Mieltxo: Aupa... begira! Gure entomologo txit jakintsuak aitatzak dituen ideia xelege
berberak ditu! Barregarria zara, apuntatu egiten dut nik ere.

Entomologoa: Ikusiko duzu...

(Harrapatzeari ekiten dio Gizonak. Sabaian beti, ihes egiten dio Mieltxok.)

Mieltxo: *(Bat-batean)* Kontuz! Zure laguntzailea dator, piura epiko horietan ikusi eta barre egingo dizu.

Entomologoa: Gezurti alaena... ez didazu ziria sartuko. Medikuarekin hitzordua zuela eta ez etortzeko baimena eskatu dit.

Mieltxo: Nahi duzuna, baina, hortxe dator...

(Atea ireki eta Neska Laguntzailea sartzen da.)

Entomologoa: *(Harriduraz)* Nola asmatu duzu?

Mieltxo: Eta zu zara eltxo kontuetan jakintsua? Usaimena dut, motel, usaimen fina! Lore usaina du neska horrek.

Neska Laguntzailea: Kaixo!

Entomologoa: *(Laguntzaileari)* Hara, baina ez zenuen esan...?

Neska Laguntzailea: Hitzordua aldatu dit. Telefonoz deitu eta bihar joateko esan dit.

(Neska sartu eta brzzz... liburua bota eta haren ondora hurbiltzen da Mieltxo. Neskaren usain gozoa usaintze aldera, arnasa sakona egiten du. Hasperen txiki bat eskapatzen zaio gero.)

Mieltxo: *(Ezti)* Kaixo...

Neska Laguntzailea: Kaixo, Mieltxo. Zer moduz?

Entomologoa: Egoskor, beti bezala, muturluze.

Mieltxo: *(Neskari, amultsu)* Musutxo bat ematen utziko didazu?

Entomologoa: Kontuz, auskalo musutxoa eman... edo ziztatu egin nahi ez ote zaituen.

Neska Laguntzailea: Gaixtoa ez izan, gizon. Tira, Mieltxo, bat...

(Musutxoa eman Mieltxok... edo ziztatu, muga garbirik ez dago.)

Entomologoa: Esan ez dizut, bada?

Neska Laguntzailea: *(Arropa aldatzeko atereaz)* O, lasai...

(Bakarrik geratzen dira Mieltxo eta Entomologoa berriro.)

Mieltxo: Inbidia?

Entomologoa: Interes zientifikoa bakarrik. Badakizu, zure psikea... Hain zuzen, galdera bat, oso... oso goxo ari zara nire laguntzailearekin hasiera-hasieratik...

Mieltxo: Inbidia?

Entomologoa: Harekiko grina sentitzen duzu? Desioa, esan nahi dut. Desio... badakizu.

Mieltxo: (*Busti gabe*) Ume bat baino ez naiz oraindik, hilabete gutxi batzuk baino ez ditut.

Entomologoa: Umea, bai, baina eltxoa ere bai. Matusalen baino zaharragoa eltxoen ikuspegitik.

Mieltxo: Umea izan edo Matusalen izan, bi horien adinak ez dira egokiak zuk aipatzen dituzun “desio” mota horietan burua gastatzeko, ezta?

Entomologoa: Burua ez dakit, baina zure gorputza... sasoi betean dago, horrela adierazten dute emaitza guztiek. Horregatik galdetzen dizut. Gainera, oker ez banago, zure gurasoak kezkatuta zeuden horrekin hain zuzen, ea noizbait maitatua izatea lortuko ote zenuen...

Mieltxo: Brzzzzzzzz...

Entomologoa: Gogo duzu? Grina sentitzen duzu? Are gehiago, maiteminduta zaude?

Mieltxo: Zu zara intsektuetan jakintsua, kongresu zientifikoetara eta joaten zara. Zer iruditzen zaizu zuri? Adibidez, bi euli, bata bestearen gainean daudenean, zer? Zerbait sentitzen dute? Grina edo...

Entomologoa: Atseginen bat sentituko dute, ezta? Bestela, desatsegina balitz... Nire laguntzailearekin maiteminduta zaude?

Mieltxo: (*Barre zakarra eginez*) Eta hala balitz? Balitz, e! Zer? Jeloskor? Zure laguntzailearekin maiteminduta zaude akaso?

(Neska Laguntzailea sartzen da laneko mantal zuria jantzita.)

Neska Laguntzailea: Zer, nitaz ari zineten hizketan?

Entomologoa: Ez, emakumea, euli kontuez ari ginen.

Neska Laguntzailea: Ai, euliak, orain esaten duzula...! Ahaztu baino lehen, “Sarcophaga carnaria”-ri buruzko ponentzia inprimatu behar dut.

(Ordenagailua piztu eta... ezpata-dantzari batzuk agertzen dira pantailan. Adi-adi geratzen da Mieltxo, begira-begira.)

Neska Laguntzailea: Baina, baina, baina... zer da hau?

Entomologoa: Aitaren... nire aspaldi-aspaldiko artxibo bat da, dantza egiten nuen garaikoa, pentsa. Begira, eskuineko hori naiz ni. Hor gordeta nuen, baina ez dakit nola atera den orain...

Neska Laguntzailea: Ez da lehenengo aldia, gauza arraroak egiten ditu ordenagailuak azken aldiotan. Uf... espero dut birusen bat sartu ez izana, edo hackerren bat... saiatuko naiz...

Entomologoa: Laborategiren bat ariko da gu espiatu nahian agian?

Arreta handiz egon da Mieltxo dantzarietara begira. Neska Laguntzaileak irudiak kentzeko keinua egin eta harengana oldartzen da.

Mieltxo: Ez kendu! Ez kendu...! *(Halako agerpen baten aurrean egongo balitz bezala)* Hori... hori...

Entomologoa: *(Laguntzaileari irudiak ez kentzeko keinua eginez)* Hori, zer? “Ezpata-joko nagusia” deitzen da dantza hori. Bizkaikoa da, borroka antzeko bat irudikatzen du.

Mieltxo: *(Pantailara seinalatuz)* Hori nahi dut nik.

Entomologoa: Zer, dantzatu? Dantza egin nahi duzu?

Mieltxo: Bai... dantzatu, bai. Baina horrekin nahi dut, horrekin.

Neska Laguntzailea: Nola horrekin...? Ez dut ulertzen.

Mieltxo: Horrekin, ezpatarekin.

Entomologoa: Burutik zaude? Ez, ez, ez, ezpatarik ez hemen.

Neska Laguntzailea: Ezta pentsatu ere.

Mieltxo: Ezpata bat nahi dut.

Entomologoa: Ezetz.

Mieltxo: Ezpata nahi dut.

Entomologoa: Ezetz, demonio.

Neska Laguntzailea: Ezta pentsatu ere, Mieltxo

Mieltxo: *(Isilune baten ondoren, serio, haserrea kontrolatzeko borrokan)* Badakizzue? Ezzetz

Doktorea eta Ezztapentsature laguntzailea ematen duzzue.

Neska Laguntzailea: Ezta pentsatu ere, Mieltxo, gu laguntzeko gaude.

Mieltxo: Niri bossst.

(Ilun.)

7. Eszena: Entomologoaren bulegoan. Gurasoen bisita.

(Mieltxoren bilakaerari buruzko argibideak ematearren, gurasoekin bilduta dago Entomologoa.)

Entomologoa: Horrelakoak izaten dira bizitzaren mekanismoak, halako batean mutazio bat gertatu eta inguru egokia suertatuz gero... espezie berri bat sortzen da. Bizitza zuhaitza izango balitz, adar berri bat nolabait esateko.

Ama: Ai ene, ez esan hori. Ez dut pentsatu ere egin nahi ze erantzukizuna den espezie baten ama izatea. Espezie oso baten sortzaile izatea? Ez, ez, ez...

Aita: Adaxka xume batena besterik ez izanda ere...

Entomologoa: Ahaztu hori, emakume, zu ez zara ezeren errudun, mutazioarena ez da borondate batek gidatutako prozesu bat, gauza aleatorioa da. Bizitza berri bat sortzeko prozesuan, zelulak milioika aldiz “fotokopiatzen” dira zelula berriak sortzeko. Gutxitan, baina halako batean “fotokopia” bat gaizki atera eta aldatu egiten da genotipoa, hortik aurrera... Modu sinplean esanda, hori da mutazioa.

(Entzundakoa prozesatzeko denbora pixka bat behar dutela, isilik geratzen dira gurasoak elkarri begira galdezka. Albisteak barneratzeko denbora ematen die Entomologoak.)

Entomologoa: Lasai, zuek ez zarete ezeren errudun, berriro diot; berez, ez da gauza txarra gainera. Alderantziz, mutazioei esker iraun du bizitzak eta gauden lekura iritsi da mundua. Lasai egon, benetan.

Aita: Arrazoia du, laztana, azken batean, zeinek ez du noizbait fotokopia bat gaizki egin?

Ama: Ez dakit, nik ez dakit jada zertan sinetsi. Ezta wikipedian ere ez dut sinesten, pentsa.

Entomologoa: Irauteko bizi-inguru egokia aurkituz gero, aurrera egiten dute mutazioek eta ondorengoak izaten dituzte. Bestela, desagertu egiten dira, kito. Kito-kito betirako.

Ama: Entzun duzu, maitea, bizi-inguru egoki izango al gara gu?

Aita: Ez gu bakarrik, mundua ere egokia izango da?

Ama: Munduak ez nau kezkatzen, gero eta bero handiagoa egiten du eta.

Aita: Bai, gustukoa du beroa, ezin du haizagailua piztuta ikusi, beti itzaltzen du.

Ama: Zeuk itzaltzen zenuela uste nuen, baina ez. *(Isilunea, hausnarrean)* Eta, ez dakit, klima aldaketaren txotxongilo moduko batzuk baino ez bagina izango?

Aita: Gutxienez, errua jada ez litzateke gurea izango, ezta? Txotxongilo huts baino gehiago ez izanda... Ala klima aldaketaren errua ere gurea izan behar al da?

Ama: Ez dakit, maitea, ez dakit nik bazter guztietan errua ikusten dudalako den, baina horretan ere ez dugu errurik?

Aita: *(Zer erantzun jakin ez eta Entomologoari)* Orduan, zer esan nahi duzu, giza espeziea egokitzen ari dela gure bitartez? Ezen, ja, zer pentsatu ere ez dakit nik aspaldian...

Entomologoa: Mesedez, ez ditzagun gauzak bere onetik atera. Dena dela, ongi pentsatuta, ez da arraroa haizagailua itzaltzea... Eltxoek gorroto egiten dituzte aire-korronteak, ez diete nahi bezala hegan egiten uzten.

Aita: Bada, Mieltxori aire-korronteak bost! Duen pisuarekin...

Ama: *(Etsita)* Horregatik okerrago... Ez dio buruak agintzen, senak agintzen dio, instintuak, ulertzen?

Aita: Eltxo instintua duela esan nahi duzu...?

Entomologoa: Otoi, emakume, ez dago oinarririk hori esateko...

Ama: *(Moztuz)* Eta hori ez esateko?

Erantzunik ez Entomologoak, isilunea egiten da.

Ama: Guk babesten badugu eta ondorengoak baditu, zeinek daki, giza adimena duten eltxoak izango dira agian munduaren jabe mila urte barru. Mila urte... edo lehenago ere bai. Konturatzen zara zer erantzukizuna den guretzat? *(Inork erantzun ez. Tonu ilunean gero)* Eta ez badugu babesten... orduan zer? Zer egin behar dugu? *(Buruan duena hitzez esateko erreparoz)* Mieltxo... kito?

Aita: Kito... nola kito? *(Esprai bat sakatzearena eginez)* Horrela, fffiss-fffiss...

Ama: *(Kasurik ez senarrari. Entomologoari)* Barkatu, nire ezjakintasuna izango da, edo sentitzen dudan maitasuna edo ez dakit, baina... hori da erabaki behar duguna? Mieltxo... kito-kito? Ulertzen didazu, ezta?

Entomologoa: Mesedez, ea zentratzen garen, zeinek esan du hori, emakume? Inork ez, inork ez du hori esan.

Ama: Ez, esan ez. Nik ere askotan ez dut dena esaten, baina pentsatu...

Aita: Maitea, ez dut uste asmo hori izango duen...

Ama: Ui, zergatik ez? Bonba nuklearrak eta, zera, misilak eta hiltzeko ez dakit zenbat motako artefaktu egiteko gauza bagara, zer beldur izpirik behar diogu, zera, halako eltxo bati fffisss-ffisss... egiteko? E?

Entomologoa: Mesedez, ez da gauza bera, ez du zerikusirik, testuingurutik ateratzen ari zara dena...

Ama: Ez Mieltxo bakarrik, Mieltxoren zelula bakoitza ere izan daiteke agian arriskutsua. Arriskutsua giza espeziarentzat, esan nahi dut, ez zuretzat edo niretzat.

Aita: Maitea, lasaitu...

Ama: A, ez? Ez duzu entzun klonazioa zer den? Ze orain zelula bat hartu eta fotokopia ikaragarriak egiten dituzte; ez nik bezala, ikaratzekoak egiten ditudala. Eta hortik eltxoak munduaren jabe bilakatzera...

Aita: *(Eskutik helduz)* Maitea...

Ama: Tira, barkatu. Egia da askotan zer esaten dudan ere ez dakidala, hain... zera da dena azkenaldiotan... Gainera, beste ezeren gainetik, ni umea ikustera etorri naiz, Mieltxo ikustera. Hona ekarri genuenetik ezin izan dugu ikusi eta...

Entomologoa: Beharrezkoa zen halako epe bat... Baina orain da ikusteko unea.

Ama: Urduri nago...

(Mahai gaineko txirrina sakatu Entomologoak, Neska Laguntzaileak atea ireki eta Mieltxo sartzen da. Lehenengo harremana ez da ez oso beroa ez oso hotza, bakoitza besteak nola erreakzionatuko duen zain egongo balitz bezala.)

Mieltxo: Kaixo, amatxo, zer moduz? Aupa, aita, ondo zaude?

Aita: Hara, begira ze ondo ahoskatzen dituen zetak.

Ama: Ai ene, ez dakit ume moduan edo gizon moduan tratatu behar ote zaitudan. Baina, zatoz, zatoz laztana, emadazu musu bat.

Mieltxo: (*Musua emanaz*) Preso nagoenez, gizon moduan tratatu, ezta? Ala umeak ere hasi dira barrotepean sartzen dagoeneko?

Ama: (*Semearen hitzak entzun eta abailduta*) Barrotepean...

Aita: Ez gaizki hartu, maitea, ez du intentzio txarrekin esan...

Ama: Esaten didan lehenengo hitza eta barroteena aurpegiratzeko izan behar. (*Abailduta*) Inoiz ez digu barkatuko hona ekartzea, mundu honetara ekartzea.

Mieltxo: (*Hitz goxoren bat esan nahian baina ezin asmatuz*) Amatxo... (*Entomologoarengana itzuliz, haserre*) Hauxe nahi zzenuen, ezzzta? Horregatik etorrazzzzi nauzzzu, ezzzta? Enkontrua intimitatean egin beharrean, zzzu aurrean egonda nire erreakzzzioa kuxkuxxeatzzzeko, ezzzta? (*Atearen aldera abiatuz*) Bada, hau ere apuntatu!

(*Eta ateari danbatekoa emanda alde egiten du. Sabaiko argiak ere dar-dar egin eta ilun.*)

8. Eszena: Entomologoaren laborategian. Neska Laguntzailearekin.

(Entomologoaren laborategian bakarrik dago Mieltxo. Ordenagailuaren aurrean dago, teklatuari eman eta eman, zerbaiten bila egongo balitz bezala. Tekla dantzari jarraituz eta modu nahasian, laborategiko lanari dagozkion irudiak proiektatzen dira pantailan. Halako batean, tekla egokia sakatu azkenean eta ezpata-dantzari batzuen irudiak agertzen dira. Bilatzen zuena aurkituta, teklata utzi eta, pantailari begira beti ere, dantzan hasten da Mieltxo, ezpatarik gabe baina dantzan, proiektatzen diren irudietako pausoak ikasi nahian edo.

Ateari bizkarra emanda dantzan dagoela, atea apurka-apurka ireki eta Neska Laguntzailea sartzen da. Mieltxoari begira geratzen da, isil-isilik, harridurak hartuta.)

Mieltxo: *(Bizkarra emanda, dantzan)* Zer? Zer moduz egiten dut?

Neska Laguntzailea: Hara, harrapatu zaitut! Azkenean ez zen birus informatikoa, eltxo informatikoa baizik, hau sorpresa!

Mieltxo: *(Dantzatzeari utziz)* Ez nauzu harrapatu, banekien hurbiltzen ari zinela.

Neska Laguntzailea: A, bai...?

Mieltxo: Eta zu zara bekaduna? *(Zertaz ari den ulertu gabe neskak)* Zure perfumea, neska, zure perfumea! Usaimena eztena bezain zorrotza daukagula jakin beharko zenuke! Zure nagusiak jakingo balu... *(Isilune laburra)* Lore usain gozoa daramazu beti, lili usaina. Gozoa... eta goxoa ere bai, goxoa batez ere; hain goxo ze... jateko gogoa sortzen dit, niri behintzat.

Neska Laguntzailea: Orduan, horregatik hain goxo nirekin beti, lore usainagatik. Eta nik nirekin maiteminduta zeundela pentsatzen nuen! Ai, ze tuntuna naizen!

Mieltxo: Maiteminduta... zu ikusi eta jateko gogo izugarria sentitzen nuen. Eta sentitzen dut.

Neska Laguntzailea: Ni jateko... ala loreak jateko?

Mieltxo: Kalizatik jateko edozein kasutan, garbi dago. *(Apur bat lotsatuta)* Baina ez, ez dakit perfumerik gabe zer jateko gogoa izango nuen. Agian...

Neska Laguntzailea: Jakiteko gaude hemen, perfumerik gabe etorriko naiz bihar.

Mieltxo: Batek daki, zakar hartuko zaitut agian, Eztapentsature andereñoa.

Neska Laguntzailea: Nagusiarekin egiten ohi duzun moduan?

Mieltxo: Horrekin? Konpresore usaina du horrek, ta-ta-ta-ta... beti.

Neska Laguntzailea: Hala ere, gustukoa duzu dantza egiten ikustea.

Mieltxo: Dantza, dantza hori interesatzen zait, ez bera. *(Isilune)* Ez da erraza esplikatzen.

Mugimendu horiek... nire baitan daudela sentitzen dut, betidanik daudela, jaio baino lehen nigan zeudela *(Dantza pauso batzuk lardazkatuz)*.

Neska Laguntzailea: Ez dut ulertzen...

Mieltxo: Itxoin...

(Tekleatu eta Bizkaiko Ezpata-joko-nagusiaren irudi bat geldiarazten du. Dantzariak bi eskuekin dauka hartuta ezpata: eskuinarekin heldulekutik hartzen duen bitartean, ezkerrarekin puntatik hartzen du. Eraso egiteko posturan, eskuina belarriaren parean jarrita, dantzariaren sudurretik luzatzen da ezpata, eltxo baten eztena irudikatuz.)

Mieltxo: Ikusten?

Neska Laguntzailea: Bai, dantzari bat. *(Hurbildu eta hobeto begiratzuz)* Ui...! Nagusia da! Ezpata bat eskuan eta dantzan...

Mieltxo: Ziur? Ziur ezpata bat den? Hori al da esgrima egiteko modua? Borroka egiteko modua, alegia? Horrela, bi puntatik hartuta?

Neska Laguntzailea: Ez, baina ezpata bat da.

Mieltxo: Baina eltxo baten eztena irudikatzen duela esango nuke. Ikusten nola hartzen duen? Eskuina belarriaren parean jarri eta sudurretik luzatzen du dantzariak, goitik behera, ziztatzeko posturan. Hori eltxo edo zomorro baten eztenaren irudikapena ez bada...

Neska Laguntzailea: Bo...

Mieltxo: Irudiak izango dituzu zure artxiboetan, begiratu eta konparatu. Baina ez da hori bakarrik, dantzari hori beste zera baten adierazlea da nire ustez.

Neska Laguntzailea: A, bai? Zerena?

Mieltxo: Ezpata eztena bada, dantzaria... eltxoa, argi da.

Neska Laguntzailea: Aupa...! Nagusiari kontatu behar diot hau, bera ere eltxo bat dela, alegia.

Mieltxo: Gizakia sortu baino lehen, baziren eltxoak munduan, zer uste? Eta gizakiak beste gizakiekin borrokatu baino lehen, eltxoak izan zituen etsai, ziur; eltxoek egiten baitzioten zizta, eltxoek zabaltzen baitzituzten eritasunak. Ez da arraro, beraz, gizakiak guzti horren memoria barru-barruan gordetzea, dantza honetan adibidez, konjuru moduan agian... Dantzari hori eltxo bat da, eltxo baten metafora, argi.

Neska Laguntzailea: Horregatik nahi duzu ezpata bat orduan, zure barruko eltxo hori konjuratzeko.

Mieltxo: Ez dakit, baina ezpata nahi dut.

Neska Laguntzailea: E... Ezetz Doktoreak du azken hitza. (*Ateratzen*) Esplikatuko diot.

Mieltxo: Aizu...! Lore usaina ekarri bihar. Nahiago dut horrela.

(Ilun.)

9. Eszena. Entomologoaren Neska Laguntzailearen deklaraziotik hartuta (segida).

(Auzitegiaren aurrean deklaratzeko.)

Nik, badaezpada, nagusiarekin hitz egin nuen
eta, memento, lore usainarekin jarraitzea erabaki genuen.
Nirekin zuen harreman gozoa ez apurtze aldera gehienbat,
izango baikenuen denbora perfumea aldatu eta Mieltxoren erreakzioa aztertzeko.
Egia esan, nik polizia jatorrarena egiten nuen.
Ez da paper erraza, baina atseginagoa bai behintzat,
psikologia handikoa batez ere
eta labainkorra askotan, bai, dudarik gabe.
Hain zuzen...
jakina, orain, gertatutakoa ikusi eta gero...
baina zalantza asko izan nituen liburuaren irakurketarekin.
Bai, epaile andrea, Gregorio Samsa-ren istorioa kontatzen zuen liburuarekin.
Benetako grina zuen liburu horrekin Mieltxok.
Askotan eskatzen zidan irakurtzea.
Nik uste, istorioa bera baino gehiago,
aitak zentsuratutako tartekak zirela haren jakin-mina pizten zutenak,
aitaren arrazoiak ulertu nahi zituelako ziur asko,
maitasun arrazoiak dudarik gabe bestalde, semearengan kezkarik ez sortzekoak.
Liburua eskuan, nigana etorri eta esaten zidan “Irakurridazu, mesedez”,
eta ni hasten nintzen “Gregorioren familia, indarrak ahiturik, ezinaren ateetan zen aurki...”.

Eta berak, “Ez, hori ez, aurrerago”,

edo “Ez, atzokoa errepikatu”, bezperan irakurritako pasarteak zirrara bereziren bat sortua bazion.

Ezin dut ahaztu, adibidez, nola,

behin baino gehiagotan

irakurri behar izan niola ondoko pasarte

etsipenak jota, Gregorio Samsa-ren arrebaren hitzak dira,

zure baimenarekin, idatzita ekarri dut:

“Guraso maiteok –esan zuen arrebak, sarrera moduan mahai gainean sekulako ukabilkada emanek—, honek ezin du horrela jarrai. Zuek ikusi ez baduzue nahi ere, nik bai! Munstro honen aurrean ez dut anaiaren izena aipatu ere egin nahi; eta, beraz, hauxe bakar-bakarrik esango dizuet: libratu egin behar dugula honengandik. Pertsonak egin lezakeen guztia egin dugu zaindu eta agoantatzeko, eta ez dut uste inork ezer aurpegira diezagukeenik”.

Buelta asko eman diot gero pasarte honi.

Nik irakurri

eta nire altzora biltzen baitzen Mieltxo orduan

eta bertan egiten zuen habia.

Damu egiten naiz orain

bere aitag bezala

irakurri izan ez banio...

Zeinek daki.

(Ilun.)

3. EKITALDIA

1. Eszena: Entomologoaren laborategian. Entomologoarekin.

(Bere zereginetan dago Entomologoak. Neska Laguntzailea sartzen da.)

Neska Laguntzailea: Orduan, ziur zaude?

Entomologoa: Bai, bai, bai... ezpatak ditut hor. Sorpresa emango diot, ea dantzan hasi eta berak esaten duen eltxo sen hori nonbait azaltzen den.

Neska Laguntzailea: Ez dakit, ez hankarik ez bururik ez du horrek. Ezpata-dantza beti izan da... joder, ez dakit, herriko festetako egun printzipalean edo dantzatzen dena, baina eltxoen istorio hori...

Entomologoa: Entomologoa naiz ni, ez folklorista ez antropologo. Nire eskuan daukat orain arte inongo entomologok sekulan izan ez duen aukera. Konturatzen zara zer den hori? Tira, esaiozu pasatzeko.

Neska Laguntzailea: Ez duzu beldurrik? Ni hemen geratzea nahi baduzu...

Entomologoa: Ez, ez, ez da behar. Beldur bakarra bihar giharretako mina izango dudala, aspaldian ez dut dantza egiten.

Neska Laguntzailea: Atearen bestaldean egongo naiz edozein kasuan.

(Neska Laguntzailea atera eta berehala itzuli Mieltxorekin. Alde egiten du gero.)

Entomologoa: Aurrera, Mieltxo, sorpresa bat daukat zuretzat.

Mieltxo: Barroteak kendu eta libre utziko nauzu?

Entomologoa: Ez, hori ez.

Mieltxo: Sorpresa gutxi orduan.

Entomologoa: Egunen batean konturatuko zara zer garrantzitsua den hemen gertatzen ari den guztia.

Mieltxo: Noiz? Nobel saria ematen dizutenean? Paretaren kontra iltzatuta egongo naiz ni ordurako.

Entomologoa: Giza espezieaz dugun ikuspegia aldatuko da agian.

Mieltxo: Ziur zaude giza espezieak giza espeziaz duen ikuspegia aldatu nahi duen? Gizakia, badakizu, “Jainkoak berak sortua, haren irudira”. Edota jainkorik gabeko bertsioan, nola da? “Homo sapiens sapiens...” eta sapiens eta sapiens eta sapiens... Buaf...! Barregarria zara. Zarete.

Entomologoa: Eltxoen ikuspegitik hitz egiten duzula ematen du. Eltxo-eltxo.

Mieltxo: Ez zarete konturatzen, giza espeziea desagertzen denean, guk, eltxook, bizi-bizirik jarraituko dugula munduan?

Entomologoa: Zure motako eltxoek?

Mieltxo: Agian ez. Edo agian bai. Zergatik ez? Culex pipiens sapiens sapiens sapiens... To!

Entomologoa: Mutazioak bizi-inguru egokia aurkituz gero... Aurkituko al duzu?

Mieltxo: Barroteena ez da behintzat. *(Isilunea egiten du)* Baina barroteak ahaztuta, ez al zaudete mundua geure neurrira sortzen, eltxoen neurrira?

(Entomologoak ez du erantzuten, airean geratzen da galdera. Elkarri begira biak, tarte batez luzatzen da geldilunea. Gero, buelta eman Entomologoak, laneko mantala kendu eta dantzariz jantzita dagoela ikusten da, praka eta alkandora zuria, txalekoa... Alboko armairura joan eta bertan gordeta dituen bi txapel, bi gerriko eta bi ezpata hartzen ditu.)

Entomologoa: Hona hemen sorpresa, begira, nirekin dantza egin nahi baduzu...

Mieltxo: *(Ezpata heldulekutik hartuz, haren luzera, haren distirari begira)* Hara...

Entomologoa: Sinesten didazu orain? *(Txapela eta gerrikoa eskainiz)* Ea, jantzi gerrikoa eta txapela.

(Mieltxok hala egiten duen bitartean, teklatuari saka Entomologoak eta dantzarien irudiak agertzen dira pantailan.)

Entomologoa: *(Dantzan hasiz, pauso eta mugimendu geldoak eginez, dantzan hasten den hasiberriari erakusteko bezala)* Ea, Beltzebu, ea nola egiten duzun dantzan.

Mieltxo: *(Bestearen pausoak jarraituz, dantzan)* Beltzebu?

Entomologoa: Ez duzu ezagutzen? Beltzebu, deabru baten izena da, “Eulien jauna” edo esan nahi du. Zu ere antzekoa, ezta? “Eltxoen jauna” zure kasuan, noski.

Mieltxo: Deabrua... odol zurrupatzaileen jauna...

(Apurka-apurka, gero eta markatuagoak dira bi dantzariak ezpatarekin egiten dituzten mugimenduak, mugimendu geldoak beti, esan gabeko borroka baten antzezpenaren parte balira bezala.)

Mieltxo: Beldurra didazu, ezta? Beldurra didazue denek, ezta?

Entomologoa: Zergatik izan behar dizut?

Mieltxo: *(Eskuinarekin heldulekutik ezpata hartuz, ezkerrarekin puntatik, eskuina belarriaren parean jarri eta sudurretik luzatzen du ezpata, eltxo baten eztenaren antzera, eraso egiteko itxuran)* Kaosa naiz ni, zuen ordenaren erdian bat-batean sortzen den kaosa, sortu duzuen kaosa, unibertsoaren aurrean biluzik uzten zaituztena, zuen jakintza guztia hutsala baita nire aurrean. Gutxi iruditzen zaizu? Zuek sortua baina ulertzen ez duzuen a naiz ni. *(Zizta egiteko halako keinua eginez)* Arriskutsua naiz, beraz. Eta ezin dut ezer egin arriskutsua ez izateko. Naiz, eta kito.

Entomologoa: *(Espatarekin kontraerasoan)* Eta zuk? Beldurra al didazu zuk?

Mieltxo: Brzzzz... Ikaragarria, ate horretatik ssartu eta iltzzzatuta dituzzzun horiek ikusssi nuenetik.

(Dantza borroka bihurtzen da. Borroka latza. Hil ala bizikoa. Halako batean, eztenkada gogor batez aurkariaren bihotza alde alde aurkitu Mieltxok eta bertan geratzen da Entomologoa, zutik, erakustaltzariaren kontra ezpataz iltzatuta. Atzera egiten du Mieltxok, arnasestuka. Sortutako zaratak erakarrira, Neska Laguntzailea sartzen da.)

Neska Laguntzailea: *(Garrasika)* Ai ama...! Pizti bat zara! Pizti nazkagarria!!

(Azkar erreakzionatzen du Mieltxok, hildakoaren ezpata lurretik hartu eta, eltxoaren plantan belarriaren parean jarritz, neskari egiten dio mehatxu.)

Mieltxo: Azzzkar, giltzzzak eman!

(Giltzak eman neskak eta brzzzz... alde egiten du Mieltxok. Ilun.)

3. Eszena: Etxean.

(Haizagailua piztuta ondoan duela, sofán dago Aita, egunkaria eskuetatik erorita eta lo-kuluxkan. Balkoia irekita dago. Bat-batean, brzzz... hegan etorrita eta eskuan ezpata dakarrela, Mieltxo pausatzen da balkoian. Egongelara sartu eta haizagailua itzaltzen du lehenengo. Gero, bertako gauzak miatzeari ekiten dio presarik gabe. Mahaitxoaren gainean dagoen liburuak bere arreta erakartzen du. Hartu eta azken orrialdetatik irekiz, sofán esertzen da Aitaren ondoan.)

Mieltxo: *(Buruz, aldian-aldian irakurtzearen itxura eginez)* “Samsa jaunak orduan...”, Gregorio Samsaren aita, badakizu. “Samsa jaunak orduan, butaka leihora begira ipini eta haiei erreparatzen egon zen une batez, lasai-lasai. Eta gero esan zuen: Benga, benga! Ahaztu, behingoz, gertaturiko gauzak. Izan nitaz ere gupida apur bat”. Ikusten, aita? Gupida, gupida eskatzen du Gregorio Samsaren aita ere. “Ondoren, hirurak elkarrekin atera ziren”, aitaz, amaz eta Gregorior osatutako familiaz ari da, jakina, aspaldiko partez hirurak elkarrekin kalera ateratzeko momentuan, “Hilabeteak ziren horrelakorik egiten ez zutela; tranbia hartu zuten kanpoaldeko aire garbia dastatzeko. Beraiek ziren eguzkiaren argi beroak betetzen zuen tranbia hartako bidaiari bakarrak. Beren jarlekuetan zeharretzanik, txit eroso, etorkizunari buruz jardun zuten solasean, eta, ondo begiratuta, ez zela hain beltza deliberatu zuten...”. Bukaera polita, ezta? *(Liburua ixten du)* Aitatxo...?

(Eskuarekin ukitu eta esnatu egiten du).

Aita: Hara! Mieltxo! Mieltxo etorri da! Zatoz, ama, begira! Mieltxo! Mieltxo etorri da!!
(Pozarren) Ametsetan ez nago, ezta? Mieltxo, maitea, emadazu musu bat!

Ama: *(Sartuz)* Baina nola...? Ez digute abisatu, baimena eman dizute...?

Mieltxo: Zer axola du horrek, ama? Hemen nago, zuekin, zuekin bizitzeko.

Ama: Gurekin... Eta ezpata hori?

Mieltxo: Ezpata...? *(Lurrera botaz)* Jadanik ez dut behar.

Ama: Nola ez duzula behar...? Behar izan al duzu, ala?

(Erantzunik ez Mieltxok.)

Aita: Mieltxo, behar izan al duzu?

Mieltxo: Zer axola du horrek orain? Zuekin bizitzera etorri naiz, ez zaudete pozik? *(Elkarri begiratu gurasoek baina erantzunik ez)* Ez duzue ulertzen? Urrutira, mendira joan gaitezke hirurok bizitzera. Txabola bat, putzu bat ondoan... besterik ez dugu behar lasai bizitzeko, tximeleten konpainian, sorgin-orratzen konpainian.

Aita: Mieltxo, odolez zikinduta duzu eskua, zer gertatu da?

Mieltxo: Pentsa, aita, gu ere, liburuan bezala, hirurok elkarrekin atera, tranbia hartu eta urrutira joan gaitezke. Eta agian, zergatik ez?, etorkizuna ez dagoela zertan hain beltza izan behar deliberatuko dugu.

Ama: Mieltxo, maitea, inoiz ez dut jakin zuri nola esaten, baina munduan ez dago zu baino gehiago maitatuko dudan ezer, horixe baino beste eskubiderik ez dut orain galdetzeko. Benetan, esaiguzu zer gertatu den?

Mieltxo: *(Isilune baten ondoren)* Egia da maitasunaren froga, ezta? Bada, hori, egia esango dizut... Ziztatu egin dut. Akabatu egin dut, hil, entromologoa. Paretaren kontra iltzatuta dago orain, hamarnaka eltxoak bezala. Tira, dantzari gerrikoa gerriaren bueltan duela, hori diferentzia.

Ama: Ai ene... ez... *(Aitari)* Munstro bat sortu dugu, maitea, munstro bat, munstro ikaragarria... *(Aita-amak elkar besarkaturik)* Zer egin dugu gaizki?

Mieltxo: Ezeren erruduna ez zara, ama.

Ama: *(Gor)* Konturatzen zara ze erantzukizun...? Mila urte barru, mila urte... edo lehenago, batek daki, eltxoak, munduaren jabe...

Aita: Eta zer egin dezakegu guk? Gure semea da, maite dugu.

Ama: Ezer baino gehiago maite, esan dizut, ezer baino gehiago munduan. Baina munstro bat da, bere borondatearen kontra ziur asko, baina da, eta kito.

Aita: Kito?

Ama: Nire errailetatik sortu bazara, Mieltxo laztana, nik garbitu behar dut errua...

(Lurretik hartu ezpata Amak bat-batean eta Mieltxorengana oldartuz alde-alde iltzatzen dio. Ilun.)

3. Eszena: Gurasoen deklaraziotik hartuta.

(Auzitegiaren aurrean daude gurasoak. Epaiketa bukatu baino lehen, azken hitza esateko aukera dute. Publikoari begira.)

Aita

Gorpua autoan sartu, mendira eraman eta bertan erre genuen

gu bertan geundela

azken txinparta itzali arte

gure semearen azken kromosoma erre arte.

Argazkiak ere erre genituen

etxean bizi zen bitartean egunez egun egin genizkion argazki guztiak erre genituen

haren arropak

haren...

Munstro bat sortu bagenuen

ez dago jada.

Haren arrasto ñimiñorik ere ez dago.

Munduan, noizbait, antzekoren bat sortzen bada ez da gure errua izango behintzat.

Jende xumea gara; ez gara gaiztakeria handiak egiteko jaioak...

Ama

Mieltxo munduratzera koan zerbait gaizki egin banuen

preziorik altuena ordainduta kitatua dut dagoeneko,

gehien maite nuenaren bizia emanda

kitatu dut nik zorra.

Aita

Preziorik altuena, bai.

inork ezin digu gehiago eskatu, epaile andrea

inork ez.

Nik ezin dut gehiagorik esan

horixe da nire azken hitza.

Ama

Nik...

Zerbait gehiago esango dut nik.

Mundua beste gauza bat zela uste nuen.

Ez genekien hau gerta zitekeenik

inork ez zigun ezer esan behintzat

ezta interneten ere

eta bat-batean...

Horregatik, nik

Antigona, Medea, Jokasta eta horiek guztiak

bai

ondo

ulertzen ditut, bai

eta ondo daude,

baina...

baina niri

begira zer esango dizudan

beraien erraiaietatik munstro bat sortu nik bezala
eta nire larruan jarrita gustatuko litzaidake greziar horiek guztiak ikustea
guzti-guztiak
alfatik omegaraino.

Erreginak ziren horiek, edo errege-erreginen alabak,
erdi-jainkoekin eta horrelakoekin harremanetan ohituak,
handi-mandiak azkenean.

Baina jende arrunta gara gu,
senarrak ondo esan du,
eta gauza izugarriak gertatzen zaizkigunean
onean jokatzeko dugu
horrela ondo ari garelakoan
bihotzarekin jokatzeko dugu,
bihotzarekin bakarrik.

Tira, bihotz-erraiaietatik agian
baina

bihotza eta erraiak ez al dira gauza bera azkenean?

Hor egon da gure akatsa?

Beste modu batez jokatu behar al genuen?

Barkatu, barkatu, epaile andrea,

bai, barkatu

luzatzen ari naiz eta bukatu behar dut,

bai, ulertzen dut

gainera, total, altura hauetan...

Dena dela...

hori

ezjakintasun hori

mundua beste gauza bat zela ustea...

hortik etorri da gure bekatua ziurrenik

ezta?

Kontua da... zeinek daki egun

mundua nolakoa den, ezta?

Zuk zeuk, adibidez, epaile andrea,

eta barkatu, ez dut... nola esan,

gogaikarria izan nahi,

baina zuk, ba al dakizu zuk?

Eta zuek, ba al dakizue zuek

epaitegi honetako epaimahaikide txit prestuak

ba al dakizue egungo mundua nolakoa den?

E?

(Azken iluna.)